

# ANAITASUNA

213. zenb.

1971.eko ekainaren 15ekoa

Jardin Txikerra, 1. BILBAO-12  
Tel. 43 18 37



ZABALA

## GU

## HEMIEN



Antonio Bilbao Aristegi izendatua izan da «Comisión permanente de la Junta de Cultura de Vizcaya» elkartearen lehendakari. Bokalak dira: Gregorio San Juan, Manuel Llano Gorostiza, Juan María Apellaniz, Carlos González Echegaray, Manuel Basas Fernández, Manuel Sendagorta, Julián Guimón, Rafael Ossa Echaburu eta Ja-

vier Bengoechea. Guzti horreen artean ba dira poeta onak, historialariak, midikuak, ekonomilariak, eta abar. Hala ere, euretariko batek ere ez dau behin ere euskaraz idatzi; eta gehienok, guztiok ez esatearren, etxe oneko semeak dira.

## BERANGO

Maiatzaren 23an, herriko 40 bat umek egin eben lehenengo jaunartzea.

Gure herrian euskaraz dakien ume asko dira, eta honeetarikoz batzuek parte hartu eben elizkizun horretan.

Berangon euskarazko mezak ere ba daukaguz. Hori dala ta, bidezkoa zan, euskaldun umeok euskarazko mezatan euren lehengo komunioa egitea. Eta holantxe egin zan: euskarazko taldeak 10,30-etan, eta erdarazkoak 12etan.

Berango aldeko leku batzuetan —Getxo eta Algortan, adibidez— ba dakit, elizkizun hau ume euskaldunek euskaraz egiten dabela. Beste herrietan ere, holantxe izango dala uste dot. Eta, izan ere, holantxe izan behar dau.

Baina apaiz batzuk euskararen alde ez dagozela esan gelinke.

Zergatik zalantzan egon, edo, Bilboko parrokia batean eta Santurtzeko beste batean jazo\* dan legez, ezetza emon arazo honetan?

Nire eritziz, apaiz horreek ere, Alta Santuaren berbak betetzeko prest egon behar dabe.

Hona hemen Joan XXIII.ak «Pacem in Terris» enziklikan argi eta garbi esan ebana:

«Responde del todo a lo que pide la justicia el que los poderes públicos se apliquen eficazmente a favorecer los valores humanos de dichas minorías (erresuma\* baten barruan dagozen minoriak), especialmente su lengua, cultura, tradiciones y recursos e iniciativas económicas».

EGIZALE

## L A Z K A N O

### Ikastola berria

Zenbait\* punta lotu ondoan, laster hastekotan dira ikastola berriaren obrak. «Mikelar» elkarteak, etxe multzo berri bat oraintsu eraiki duen kooperatiba, da arduradun, eta beronen babespean ari\* izango da ikastola. Baina herri guztiak parte har dezan nahiz izan dute; ez dadila, bidezko den bezala, Mikelartarren probetxurako izan soilki\*, baizik eta herri guztiaren zerbitzurako. Gure goresmenak, eta... ea lehen bai lehen burutzen duzuen obra.

## B E A S A I N

### Herriko jaien laburpena

Hasteko: eguraldia ez dugu bizlro ederra ukan\* astean zehar. Hala ere, aterri heldu zen Loinaz eguna. Prozesioa eta meza nagusia Loinaz sandutegian. Ondoren, jolas-baratze bat (Arana familiaren emaitza) eta aterbe delako bat, «guardería» bat alegia\*, be-deinkatu eta estrainatu ziren. Herriko agintari, apaiz eta gobernadoreak, adiskidantzarik onenean, bazkaria «Castillo» ostatuan.

Asteartea\*, euskal astea edo jakintza astearen lehen eguna. Herriko den «Enbor» erestalde\* berriaren eta aintzinako soinugailuen\* saioa (alboka, xirula, dultzaina, xistu, xalaparta...).

Ikastolako xistulariak, dantzari ttiklak, eguerdiko bertsolarien (Lasarte, Lazkano, Lazkao-Txiki eta Uztapideren) salo atsegina, eta arratsaldeko Aita Villasanteren hitzaldia «Euskararen Batasuna»z, izan ziren gauzarik berezienak asteazkenean\*.

«Enbor» erestalde berriro, eta Idiazabalgo Axari antzerki taldea, Uxolaren «Itzulera» emanez, ostegunean\*. «Euskal Herriaren gizarte-ekonomi egoera eta etorkizuna» gaitzat harturik, Iñaki Larrañagaren hitzaldia jakingarria ostiralean\*. Arrakasta\* handiz, Jarunbat-igandetan, «Ez dok Amairu» taldeak bere «Baga, Biga, Higa» delakoa zuen eman.

Bereziki\* aipatu behar dena hemen: aste osoan zehar muntaturik egon da han-hemenka, batean eta bestean (Jendea non biltzen zen, han) Euskal Liburu eta Diskoen Azoka\*.

Igandea\* (maiatzak 30) izan zen, ordea\*, aspaldiko berrogei urteotan Beasainek parekorik ezagutu ez duen eguna, zeren\* eta Beasain erdal herri bezala ikusia izan baita\* beti. Goizean goizetik ziren bildu euskal lurraren lau aldeetatik dantzari eta xistulariak multzokoa. Halakorik!

Arratsaldekoa izan zen, berriz, hortik honerakoa. Futbol zelaia jendez gainezka, eguraldia ere aurreko egunetan ez bezalakoa, hura giroaren jatorra! Bat-banaka eman zuten dantza taldeek beren erakusketa, dantzarik berezienak (Laguardiakoa bezalaxe, Nafarroako Herribeherakoa, eta Bizkai, Gipuzkoa, Lapurdi eta Zuberokoak). Bakoitzak zailu\* eta laburki jokatzearekin, are\* gustagarriago bihurtu zen bestaldia\*. Tartean, Txanbok, gure xistulari lehiatsuak\* ere eman zeukun ikuskizun bikaina, hainbat xistulari ttiki eta koxkorrek batera jotzen zutelarik.

Etengabeko irrintzi, oihera eta kantuz, kalez kale eta umore onean amaitu dira aurten gure herriko bestak. Hamaika lan eman daukuten bestak, baina denon artean, gazte eta heldu, ahal duen ahal duen heinean\* lagunduz, geurok antolatatu ditugun bestak. Geure geureak!

## DURANGOALDEA

Udaberri honetan hegoaizé Indartsua darabilgu eskualdean\*. Haren putzaren indarrak txori lumak bezala eroan deuskuz esku artetik batzar bi eta zarzuela bat; eta antzerki talde baten aretoa\* ere halan holan ibili da. Ikustekoa izango da, noizarterainoko jarraitu behar dauan aize zital horren putzak!

Jainkoa edo deabrua —ez dakit bietarik zein— lagun badaukagu, ekainaren\* bigarren hamabostaldian eukiko ditugun jaiak, honek dituzue: 24ean, Murgoitio Berrizko auzunean, Garain eta Al-dape Elorrioko auzunean, San Joanak; 29an, Durangoko Tabiran eta Berrizen, San Pedroak.

Joan dan maiatzaren 30ean, Gerediagarrek ezin izan dabe egin Garain, euren gogoan egoen Mendekosteetako batzar nagusia, balmena heldu ez jakelako. Debekantzarik ez dabe euki, baina balmenik ere ez. Hitzen misterioa!

Ekainaren 27an, eskualdeko ikastola umeentzako II. Jaialdia egingo da Elorrioren. Eskualdeko zortzi ikastoletako umeak elkartuko dira egun horretan, eta euren jolas, marrazki\*, antzerki eta trebetasunak euskaraz eskainiko deuskuz.

Durangoko Tabira Mendi elkarteak ekainerako antolatuta daukan irteera, Andutz mendira izango da hilabete honen 20an. Mendi hau Mendaro-Deba Inguruan dago.

JOAN ANTONIO AROMA

## MONDRAGOE

Datorren ekainaren\* 20an, Haurren Eguna ospatzeko asmoa dugu. Horretarako, Euskal Herri guztiatik, dantzari eta txistulari txikien talde asko biltzen ari\* gara.

1.500 haur izango dira, gure artera etorriko direnak: denak euskal jantziak eta beren musika eta dantzarako soinugailuekin\*.

Dantza, kalejira, kanta eta abar izango ditugu. Jaialdi zoragarria noski\*, bai txikielentzat eta bai handientzat ere.

Baina problema bat dakarkigu jende biltze honek: **Non jango dute haur guzti hoiak?** Horregatik, Mondragoetarren bihotz zabaltasunari dei egin beharrean gaude.

Hauxe izango litzateke atsegina: Familia bakoitzak bi edo hiru ume har ditzala bere mahaian. Eta, honela, batean konponduko lirateke antolatzaileen diru arazoa eta beste buruhaustekak.

Idea hau ondo hartuko duzuela uste dugu, eta Mondragoeko familiak prest egongo direla, ume hauei beren etxean bazkaltzera dei egiteko.

Egun horretan ume dantzariak, zeuen mahaian bazkaltzeko, euki nahi badituzue, esan ezazue zeuen izena, zuzenbidea eta zenbat ume nahi duzuen.

Arrasateko herriari dei bat egiten diogu egun horretarako: Herriko umeak euskal jantzi apainduta irten daitezela kalera, ahal bada behintzat.

DANOK, euskal jakintza taldea

## RHODESIAKO ELIZAREN JOKABIDEA

Ahoa bete hortzekin\* gelditu gara, Londreseko Tablet astekari katolikoak Rhodesiari buruz emanberri duen informazioa irakurtzean.

Tablet-ek dioenez, hango Eliza «split down the middle» hotz\*, oso alderdikaturik omen\* dago, egungo egunean, gobernuarekiko Gotzainen politikagatik.

Kristauen arteko alderdikatzeko hau nonnahi aurki daiteke. Beraz\*, ez da hori, Tablet-eko txostenean\* harritu gaituena. Hierarkiaren postura da, ezin-sinetsizkotzat hartzen duguna.

Dirudienek, Estatu arrazistari makurtu zaio Eliza, justizia eta moralaren aurka dagoen **apartheid** egoera bat onartuz. Bildurra? Prudentzia? Zuhurkeria? Koponkeria? Jakin ez dakigu, baina honako hau\* dira gertaerak.

Guztiek dakite, Ian Smith jaunak egindako lur banatze higuingarriaren berri. «Land Tenure Act» legearen bitartez, bi zatitan erdibitu zituen Smith-en gobernuak Rhodesiako lurrak: bata populu beltzarentzat, bestea populu zuriarentzat.

Bi zatiok berdintsuak dira: 50 milioi bat akre laborantza lurretan. Legearen arauera\*, populu biek banatan\* bizi behar dute, bakoitza bere lur zatian.

Hau Salomonen epaia!

Gauza pixka bat hurbilagotik\* begiratzen badugu, ordea\*, berehala konturatzen gara Smith-en makurkeriaz, bi populuen neurriak oso desberdinak baitira. Beltzak bost milioi dira; zuriak, berriz, milioi laurden bat, gehiagorik ez.

Elizak horrelako bidegaberik ezin zezakeen onar, eta ez zuen onartu. Orain urte bete, «Land Tenure Act» delakoaren kontra protesta handi bat egin zuen, lege hori salatuz.

Bestalde, Goitzainek gobernuari ultimatum bidali zitoten, esanez, eskolako **apartheid** politikak iraunez gero, Elizak bere eskola, gaixotegi eta umezurtz etxe guztiak hitxiko zituela.

Orain arte, dena ondo. Printzipioek eta egiteek bat izan behar dutela, argi eta garbi erakusten zuten Goitzainek.

Baina bat batean, inork usterik ez zuelarik, konpromiso bat egin omen\* da, eta, hain zuzen ere, beltzen bizkarretik.

Tablet-ek dioenez, Gotzainek, eskolako diskriminazioa onartuz, erabaki bat hartu dute: hemendik aurrera, zuriertzako Elizaren eskoletan, ikasle beltzak ez dira sartuko, ehunetik bost izan ezik.

Beren desenkusak\* eman dituzte Gotzainek, jakina, «caso de fuerza mayor» dela esanez. Episkopaduaren sekretario den Aita Randolph jesuitak beste atxakia bat eman du, benetan eskandaluzkoa iruditzen zaikuna: «Printzipioak azaltzea errazago dela, hoik\* praktikan jarzeko modua jakitea baino» esan du Randolphek.

Elizak hamaika bider kondenatu du arrazismoa. Oraindik orain, memorandum bat bidali du ONUra arrazismoaren kontra. Baina, Rhodesian, diskriminazioa Elizak berak erabiliko duela dirudi.

Gaurko mundua aldatu egin behar dela diogu kristauok, bidegabekeriak josita dagoelako. Baina Elizak, iraultza\*, gogorkeria eta odol isuraraztea ez dela bide ona esaten du; aldakuntzak, bakez, pixkaka eta erreformen bitartez egin behar direla.

Arrazoi handia du Elizak. Baina, beraren jokaera ikusita, txunditurik\* gelditzen gara batzuetan, «aurreku» ez baita\* haren dantza, «atzesku» baizik, Gabriel-en terminologia erabiliz.

Ni ez naiz iraultzazale. Erreformazale naizela bildurrik gabe aitortuko nuke. Baina, erreforma hitzari, zer esannahia ezarri behar zaio?

Baldin erreformazale izatea, luzakor, pazifista eta konpontzaile izatea bada, nik ez dut uste, Kristo Jauna erreformazale zenik!

Ba daiteke, Rhodesiako Gotzainek egindakoa, zenbait saihetsetatik, ondo eginga izatea. Nik ez dakit. Baina arrazismoa mundu guztirako problema bat da, eta oraingo erabakia oso eredu\* txarra izanen da mundu guztiaurrean. Noiz arte jarraituko gara, hitza eta egitea ados jarri gabe? Eta nork sinetsiko du Elizaren sinteriditatea?

Beste gauza bat izan da, oso desberdina, Monzanbiken Aita Zuriak hartutako postura.

Berrogei Aita Zuri atera dira Monzanbiketetik. Zeratik? Zeren\* —beraien hitzekin esanen dugu— «nous pensons qu'il y a des situations où, comme saint Paul, il nous faut répudier les silences, ne nous conduisant pas avec astuce et ne falsifiant pas la parole de Dieu» (II Kor. 4, 2).

«Nola gaitzeko gu maliarrak izan maliarrekin, kongotarrak kongotarrekin, tanzaniarrak tanzaniarrekin... eta aitzitik\*... portugesak mozanbiketarrekin?»

Honelakoak dira Aita Zuriaren nagusi jeneralaren hitzak. Berak argitaratu idazkiak burutik burura irakurtzea merezi du.

Hau da, justiziaren alde garbi jokatzeko! Eta ez Rhodesiako Gotzainen joera. Edo, egia osoa esan, hango Gotzainen maioriaren joera; haietako batzuk, zorionez, ez baitaude ados hartutako erabakiaz.

KARLOS SANTAMARIA

### ANAITASUNA Bizkaja

Hamabosterokoa.

Zuzendari: Anjel Zelaleta.

Zuzentzaile: Imanol Berriatua.

Idazkola ta banakola: Jardin Txikerra, 1. Bilbao (12).

Imprimatzale: Juan José García de Mardones, Joaquín Jáuregui, Luis María Tafalla eta Gabriel García de Andoín, AMADO inprimerian, Bilbon.

Irarle: Gil Díez eta Manuel Barrera, RALI etxean, Bilbon.

XIX urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

## Euskararen «sagradutasuna»

Honela inostan\* lehengo batez gizon batek: «Herri bakoitzak merezi dauna besterik ez dauka». Jakina, gure kasuan hori gezur biribil bat da. Baina kontuz: nondik begiratzen jakon, egia biribilena ere gertatzen da.

Bizkaitar batek inostan behin, beretzat euskara sagradua dala. Baina holako hori inostan horrek, egundo sekula ez dau euskaraz idatzitako libururik irakurri, ez euskal historiarik ikasi, ez euskal literaturarik ezagutu. Egia esan, euskararen «sagradutasuna» ondo bal ondo errespetatzen dau. Baina begira: euskara sagradutzat daukanak holako hori egiten badau, zer espero euskara sagradutzat ez daukanaren gandik? Eta, ahaztu baino lehen, «herri bakoitzak merezi dauna baino ez dauka» Sabino Arana Goirik esana da.

## Etxamendi-Larralde kantarien disko berri bat

Etxamendi-Larralde kantariak disko berri bat atera berri dabe, Mixel Labegerie eta Arrosa Camblong jaun-andren laguntzaz. «Ama, zer duzu nigarrez», «Josepe Elozegi», «Karabantxeldarrak» eta «Haurtxoa» dira lau kanten izenak.

## «Ez dok Amairu» Pauen

«Ez dok Amairu» kantari taldea Frantziako Pauen izan berri da. Baionako «Herria» astekarian honetaraxe irakurtzen da, Paueko jardunaldi hori dala ta: «Holek denek, kantuek, hltz samlnek, gogoratu dauzkigute gizonaren betiko oihartzunak\*: libertatea, amodioa eta partikularki lana, egun guztietakoa, ordinariora, akitgarria\* eta zenbait\* aldiz lotsagarria».

## Iruineko San Ferminak

«Ez dok Amairu» taldeak bere «Baga, Biga, Higa» saloa eskalnko dau Iruinean, San Ferminetan, uztaillaren\* 10ean, goizeko hamaketan. Horrez gainera, izango dira, bal, zezenak, dantzak, ardoa, amodioa, herrimina, atsekabea eta heriotzea.

## Donibane Lohitzuneko kermeza

Ohi dan kermeza\* ospatu izan da Donibane Lohitzunen, maiatzaren 16an. Mattin eta Xanpun bertsolariak jardun eben.

## Euskal jaia Eiheralarren

Mattin, Xanpun eta Esponde bertsolariak, Eñaut-Etxamendi, Larralde eta «Oskorri» taldeko kantariak jardun izan dabe Eiheralarreko euskal jaian, Salvatore\* egunean.

## Pasiotarren euskal jaia Euban

Bizkaiko Euban, Orue auzoan, Pasiotarrek urtero egiten daben jaialdia, aurtan, maiatzaren 20an, Asentsio egunez, izan da. Denbora trumotsua, goizean eguzki zitala eta arrastian euria, eta jende asko.

Taldeakako txistularien lehiaketa\* Markinako Ansola analak irabazi eben, Bilboko «Txori Alai», Bilboko Udaletxeak\* eta Orduñakoak ondoren zirelarik.

Bakarkako kantarien lehiaketa Bermeoko Lupe Fernández nekatoak irabazi eban. Haren jarraian, Algortako Mikel Torrijos, Muxikako Jon Enbeita eta Ondarroako Garbife Landaribar.

Taldeakako kantarien lehiaketa Zaldibarko «Gau Txoriak» izenekoek irabazi eben. Haren jarraian, Santurtzeko «Argi Barri», Ondarroako «Odol Barri», Berangoko «Anaitasuna» eta Bermeoko «Matxin Zaleak».

Meza denboran, goizean, meza laguntzen ziharduan Pasiotar batek esan eban mikrofonoetatik: «Euskalduna, fededuna... Kristo, gaurko liturgiak dinoskunez, zerura joan jaku, baina ez gaitu baka-rrik utzi. Bera beti dago gurekin... Kristo da gure benetako llderra...»

Meza ostean, beste Pasiotar batekin egon ginen.

—Jende asko, ezta?

—Bai zera! Gazterik ez da izan. Gazteriak utzi egin dau Eliza.

Eta Elizak ez dauka zereginik, oraingo estruktura hau apurtzen ez badau. Atzo ere, dozena bat gazte inguru atzeman\* ei\* ditue Arrasaten...

Pasiotar fraileari begiek ihes egiten eutsoen, tristuraz, jendar-tera, gazteak ikusi nahiz bezala; eta letra honeek idazten dituanari, joan dan udan Pasiotarren artetik irteadako 25 gazteak etorri jakozen burura.

## Mondragoeko ikastola lege bidean

Arrasate edo Mondragoeko ikastola lege bidean omen\*. Goltik, agintzen dutenek, kondizio bezala, herriko alkatea ikastola batzordeko\* «berezko lehendakari» izan dadila eskatu dute; eta, berebat\*, Udaleko kontseilari bi batzorde horretako izenda daitezela. Gurasoek baietza emanik, uste da, orain, behingoa\* legalizatua izanen dela ikastola. Poztu daitezke, alafedel, guraso eta irakasleak. Horrelako babesik nonnahi!

## Ezkontza sakramendurako liburu berria

Sakramendu honen molde berriko liturgiaren testoa, argitara eman bezain laster ikusia dugu. Lazkanoko beneditanoek eman daukute, Gipuzkoa eta Bizkaiko euskaraz, guztiz poliki taxuturik. Lehendanik ezagutzen genuen, berriz, Bidasoaz handikoen argitalpena.

Elizak ari du bere lana, eta poztu egiten gaitu (euskararen aldetik ari\* naiz orain); baina, ez ama eta irakasle, baizik neska-me\* eta mirabe\* den eritziarekin uzten gaitu. Alegia\*, iduri du, atzetik eta zenbait\* xulo hornitzen ari dela. Noiz arte, hiru testo desberdin eginaz, jarraituko ote? Ez ahal da, bada, gorabehera guztien artean ere, deus\* finkatu euskara batasun bidean?

## Euskal izen berriak hauzitara

Duela urte eta erdi edo..., Idiazabalgo guraso batzuek «Oroit» ipini zioten izena beren haurrari. Bai izen egokia eta ozena\* euskal belarrientzat, ezta? Bataioan aise\* pasatu zen; ez, ordea\*, juzganduan, ez baitzuten onartu inola ere. Hauzitara jo zuten gurasoek, eta, azkenean, ezezkoa hartu beharrean gertatu ere. Agian\* ez da egoki pertsonarentzat gisa horretako izenik. Egokiago ote Pakomilo, Zirillo, Romualdo..., adibidez?

Orain, Oroit-en ordainez, «Osoitz» ipintzea pentsatu dute. Izen historikoa guretzat, gure aintzinakoen artean erabilia izan baitzen. Baina, bai zera! Oztopoa berriro; berriro hauzitara. Makurra da, nonbait, gure bekatual



PENTZUAK

Sarb-en ardurapean eratuak

VALLE DE ATXONDO (Bizkaia) - Tel. 11

Zure etxeko behi, txahal, egazti,  
ardi, koneju, nahiz txerri,  
onuragarri izan ditzazun,  
emaiezue Ongarri.

# IPARRALDETIK BI BERRI

## Baionako Komerzio Ganbara eta Ipar Euskal Herriko bizibidea

Duela aste zenbait\*, Ipar Euskal Herriko bizibideaz Inkesta\* edo ikertze bat arras\* interesantea agertu dauku Baionako Komerzio Ganbarak. Zuzenkiago esan, ikertze hori ez da Ipar Euskal Herriko hiru probintzietarat hedatzen\*, zazpi kantonamendutarat balzizik. Kantonamendua, frantses administrazioak finkatua duen eskualde\* baten izena da. Delako zazpi kantonamendu hoién Herriburuak hona zein diren: Baigorri, Donibane Garazi, Donapaleu, Bidasuna, Bastida, Hazparne eta Iholdi. Bigarren ikertze batean, aipatu behar dituzte itsas hegí\* aldeko kantonamenduak: Ezpeleta, Uztaritze, Donibane Lohitzune, Miarritze, Baiona, Ternose eta Saint-Martin-de-Seignaux.

Batek esan lezake, eta non dago Zuberoa? Zuberoa ez dute alpatzen. Zergatik ote? Ez dea\* Euskal Herrikoa? Gu bezalako bantentzat ez da hor dudarik: Euskal Herrikoa da. Baina Baionako Komerzio Ganbara, frantses administrazioaren tresna bat da. Eta ba dakizue, nola frantses administrazioak Zuberoa Biarnoari lotua duen, esan nahi baita\* Paueri, eta ez Baionari. Bestalde, Baionako Komerzio Ganbarak, Baxenabarrak eta Lapurdiz gainera, hartzen du ere Landes-etarik zati bat, ekonomi aldetik Baionari josia delakotz. Bi hitz orain, ikertze horrek agertzen duenaz.

—Lehenik jendetzeaz. Mende\* bat barne, zazpi Herriburutako eskualde horrek bere jendetzetik hirutarik bat baino gehiago galdu du. Herri zenbait, hala nola Iholdi, kilometro arau, 20 jendetara edo pertsonatara jaitsi\* dira. Esan nahi baita, herri hoietan, luza gabe, bide beretik joanez, herri-zerbitzurik gabe geratuko direla. Segur, turismoa goiti\* arl\* da, eta bitartean herriak husten.

—Bideak edo erregebideak. Ez da, ez, eskasiarik. Baina direnak, gutiz gehienak dira hertsialak\*; eta zenbait, estatu txarrekoak. Bide haundirik gabe, nondik nola ekarraz industrilariak?

—Laborantza edo nekazaritza. 1954.etik 1968.a barne, beraz\* hamalau urtez, laborantzak 3.590 enplegu edo lanbide galdu du

delako zazpi Herriburu hoietan. Etxaldeak edo baserriak hustu dira dotzenaka, bakar zenbait haunditu; baina, hala ere, ez du oraino etxalde batek bererik ematen. Ainitz\* etxalde tresnatu dira, baina zorretan geratuz. Dena den, esnearen eta haragiaren aldetik zerbait egin daiteke geroari buruz. Bi sail hauk ongi doazela dirudi oraingotz.

—Oihanak\*, oihangintza. Ipar Euskal Herriak egin duen huts haundienetarik bat da, herriko milaka eta milaka lur hektarea ez oihaneztatzea, nola eginak izan baitira Hegoaldean.

—Etxegintza da sailletan hobekienik kurrutzen duena, nahiz azken bi urte hauetan beherapen bat erakusten duen.

—Lantegintzak edo industriak beherapen edo apaltze handia egin du azken hamalau urte honetan, 550 enplegu edo lanbide galduz... Bereziki\* Hazparnen.

Ipar Euskal Herriak, oraino urte zenbaitez, esperantza ttipia duke\*, beharrezkoa duen industria berriaren ikusteko. Nafarroak bere etxean egin duen lana, ez daduka oraino Iparraldeak eginik, ez duelakotz Herriburuzagitza azkar eta euskaldunik.

## «Noiz» en antzerkilariak Pariserat

Iparraldeko euskal teatroan, aurtengo Izarra «Noiz» izan dela ez da ukatzerik. Oraingotz, dotzena bat aldiz emana izan da; eta azkenik Gipuzkoan, Lazkanoko herrian. Orotan\* arrakasta\* ona ukan\* ere duela, esan daiteke, espanturik\* egin gabe.

Maiatzaren 21ean joan zaizkigu «Noiz» en antzerkilari airosak eta erneak, Pariserat. Han bi aldiz eman behar dute, alabaina\*, Daniel Landart-en antzerki hori.

G. L.

## «Noiz» antzerkia Uztaritzen

Daniel Landart gazteak egindako «Noiz» antzerkia jokatu izan da Uztaritzen, maiatzaren 30ean, «Bilgune» salan.

## Kermeza Donapaleun

Ohi dan kermeza\* ospatu izan da Donapaleun, maiatzaren 30ean. Mattin eta Xanpun bertsoariak jardun eben.

## Gotzon Garate jesuitaren mintzaldia Durangon

Gotzon Garate jesuita elgoibartarrak berbaldi bat eman izan dau, «Marxen Marxismoa» gaiari buruz, Durangon, ekainaren\* 2an, Jesuiten etxean, euskal alfabetatze taldekoek eraturik. Gotzon Garatek euskara ondo daki, euskara batua proposatzen dau, eta toki askotara mugitzen da, bere hitzaldiak ematera. Haren «Marxen Marxismoa» liburuari bagagokioz, begi onez ikusi izan da euskaldun askoren artean, jakintsu batek gaur gaurkoa dan gai bat euskaraz erabili daualako batez ere. Baina, euskaldun ezkertlarren artean, ez dau hain harrera onik izan, Marxen teoriak modu onez azaltzeko barik, Marxen pertsonalitatea dudak jarri eta haren ideologiaren muina ilun samar uzteko egin ote dan uste baitabe.

Gotzon Garate Deustuko Unibertsidadeko Irakasle da. Eta ikastetxe horretako gazteek, eta Euskal Herri osoak ere, egiten dau nagatik eskertuz gainera, asko eta asko itxaroten dabe beragandik.

## Euskal kantariak eta euskara

Hona hemen, Abel E. Jaunak «Euskaldungoa»-rako bidaldu deuskuna:

Non da euskara? Non, euskara juzgatzeko juezak? Zertan arl gara? Euskaldun kantariak ala abeslari hutsak ateratzen?

Maiatzaren 20an Euban ikusia: Euskal kantarien txapelketa, lau banako eta lau talde. Ba egozen, euskaraz ez ekienak. Baina ez zan hau bekatu nagusia, ez. Ba egozen haundiagoak. Herriak ez eutsen batzuei, zer esaten eben ulertzen, euskara lotsagarria zalako. Gehiago oraindik: juraduak ez eban hau, euskara, kontuan hartzen. Lotsagarria! Hobe dala uste dot erdara egitea, ez bata eta ez bestea baino. Hain gaitza ote da, abestu behar dana euskara onean egitea? Kantariak ere, euskara hondatzeko makina bihurtu behar ote ditugu? Horrela bada, hobe isildul

## Agustin Ibarrola pintorearen mintzaldia Bilbon

Maiatzaren 21ean, Agustin Ibarrola pintoreak berbaldi bat eman izan dau Bilbon, «Aize Errota» ikastolan, «La Pintura y Escultura Vasca» gaiari buruz. Haren lanen erakusketa bat eginez gainera, elkar hizketa bat euki izan zan mintzaldi ostein.

## Domingo Izagirre jaunaren hitzaldia Anoetan

Maiatzaren 22an, Domingo Izagirre, «Federación Gulpucoana de Ikastolas» erakundeko\* idazkaria, «La ikastola, vehículo de la cultura vasca» gaiari buruz mintzatu izan da Gipuzkoako Anoetan, hango elizako gela batean.

## Euskal antzerkia Deban

«Itzulera» izeneko antzerkia jokatu izan dau, Deban, Idiazabalgo antzerki taldeak, maiatzaren 21ean, Zubelzu aretoan\*.

## ZER DA SOZIALISMOA?

ANAITASUNAREN 211. zenbakian agerturiko «Pentsatzeko Egoera» artikulua oso ausarta\*, berria eta polemikagarria iruditu izan jat. Horrexek bultzatu nau, zerbait idaztera.

Sozialismoaren irteerarik eza aipatzen da lehendabiziko zatian, iraultzarako\* posibilitatearen amaiera. Izan ere, langilegoa\* konformatze batera doa, sistemaren onartzera. Bizimoduaren hobetzearekin, ideal guztiak moteldu egiten dira. Nork gura dau sozialismoa, batez ere sistema kapitalistak ematen dauan bizimodua, eta aurreragorako eskaintzen dauana ikusita? Gero, «renta per capita» dala-koaren eta iraultzarako gogoaren arteko zerikusia aztertutik, garbi agertzen da, Ipar Amerikako langilegoaren bidean goazela danok. Gure Herriak egindako ahalegin guztiak orma\* baten kontra dese-gin dira.

Ba dira artikulua horretan egia haundiak; eta komeni da, noiz edo noiz aidera botatzea. Baina, holako gai bat ikutzean, labur izan beharrak eta alderdi guztiei heldu ezinak, gauza asko paperetik at\* uzten ditu.

Beharbada, «Aurtiz» jauna arrazoi barruan dago, eta, gainera, gai horren inguruko isiltasuna apurtzeko adorea izan daualako txalotzen dot. Baina, ene ustez, beste alde batetik begiratu behar jako arazo honi.

Zer da sozialismoa? Zertarako da? Hasieran, sozialismoa, gizona gizaki legez\*, merkantilismoak baino hobeto konprenitzen eban ideologia, teoria eta ekintza planteatzeko modu bat zan.

Marxismoa zientzi mailara igon zan aldi haretan, gizartea, kon-daira eta gizona bera aztertuz. Sasoi berean —hobeto esan, ari-nago— zientziak (fisikak, kimikak...) ikaragarritzko bultzada bat izan eban. Ba zirudian, naturaren sustraietaraino heltzen zala, gauza guztiak azalpen bat emanez. Ez da, bada, kasualitatea, marxismoa ere une honetan sortzea. Zientzia batzuk, oraindik, orduko eran irakasten dira; beste batzuk gaingitu egin dira, ikuspide zabalago batean sartuz (mekanika errelatiboa, mekanika klasikoa). Baina marxismoa ez da oraindik sartu beste teoria zabalago batean; eta, bere sorreratik hona, sozialismoaren monopolioa beretzat hartu dau. Are\* gehiago: leninismoa, sozialismora heltzeko bide bezala jarri da.

Mundua, ostera\*, errealitate dialektiko bat dan neurrian, aldakuntza eta gaingitze hutsa da. Honegatik, gaitz\* baino gaitzago da, orain 100 urteko teoria eta ekintzak gaur egun ere era bereko balioa izatea.

Gaurko produzio sistemaren aztertze bat behar da, jakina; eta, era berean, helburuen\* berriztatze bat. Sozialismo hitza, berez, ez da ezer. Gizona doa haren bila; eta, bide luze honetan, izen asko jarriko deutsoz bere helburuari, eta izen horreek ere ez dira beti zuzenenak izango. Gizonak tentatiba pilo haundi bat egin behar izango dau; eta, gutxi gora-behera, aurrerago edo atzerago, ezkererago edo eskuinerago, beti saiatuz, urratu behar izango dau bere bidea.

Ene ustez, euren denboran jakintsu eta argitsuak izan ziren gizon batzuk fosilizatuak izan dira; eta euren pertsona eta ideiak,

### TOLOSA

Donostiako «Anexa» ballet taldearen saioa ikusi dugu Leidor zineman, eta, egia esan, asko gustatu zaiku. Lastima, horrelako gauza ederrak behar hainbat jende ez bilaraztea. Eta honexek kezkatzen gaitu, hain zuzen ere: herrian kulturaren aldeko ardura gehiagorik ez dugula ikusten, futbolak eta telebistak jendea erabat\* nagituzik dadukatelarik.

Hala ere, ba dira batzuk oraindik, artearen alde lan egiten dutenak; eta, halaxe, gazte batzuek antolatutik, herriko liburutegian beren kuadroak erakutsi dituzte Matxin Labaien eta Telleria pin-toreek.

Hemen, ba zen oraindik zenbait kale eta enparantza\* izenik gabe, eta, dirudienez, heldu zaie hoiere beren txanda. Tamalez, parte zaharrekoek izenak euskara-erdaraz badituzte ere, berri haue-nak gaztelaniaz bakarrik ipini dituzte. Udaletxeko agintariei ezin emanen dizkiegu eskerrak, ez eta zorionak ere.

dogmatizatuak. Hauxe da, ene eritziz, gaurko problema. Iraultza egin daben Herriak kapitalismoaren bizio berdinetan jausi dira, mundu guztiko proletarioaren\* izenean burokrazia baten interesak zainduz. Ez dakit zergatik baina, gaur egun, zientzia, ekonomia eta pentsamentua atzeratuta, gatigatuta aurkitzen ditugu, adibidez, URSSen eta Txekoslovakian. China bera ere, Pakistaneko gerran, inperialisten alborra jarri da, bere interes ekonomikoak jagotearren\*.

Burokrazia haundi honeek, mundu guztian zabalduta daukezan partiduak euren interes berezien alde jartzen ditue, harrokeria larregiz\* interes horreek eta gizonarenak bat eginez. Irakurri, kasurako, «Historia y Vida» aldizkarian, «El Ejército de Euzkadi» artiku-luan esaten dana: «Entonces, estamos engañando a los vascos...»

Sozialismoa ofizialki ezarritako esanguratik bereizten badugu eta gizatasun kutsua ematen badeutsagu, gizona gidatuko dauan izar bat izango da beti. Herri bakoitzak bere erara bilatu beharko dau sozialismoa, besteren laguntasunarekin, baina inolako inposamentu barik. Gure ekintzek honekin ados etorri behar dabe, eta ez dogma modura emandako aginduekin.

Errealitatea aztertu, bai, eta bide berriak urratu ere bai, baina ormarek\* kontra ez. Era berean, ez dago pentsatu beharrik, iragan\* hobeagoa zanik. Gaurkoa gaur: hau da dialektika; eta joan direnetatik ikasi, gero eta zuhurragoak izan gaitezten, etorkizunaren bideak jartzeko orduan.

IRAKURLE BAT (Bilbo)

daukez, **daduzkate**, dauzkate  
deutsagu, **diogu**  
deutsoz, **dizkio**, diozka

jako, **zaio**  
jat, **zait**

¡SOBERANO  
es cosa de hombres!



## EUSKALERRIA

¡Gizonen ama lurra da!

# OSABAORDEAREN LARRIALDIAK

## IKASTOLA ETA LIBURUTEGIAK

Aurrekoan, ikastoletan zen liburuen premia aipatzen genuen, eta premia honen arrazoiak zer-nola ziren. Eman dezagun, oraingoan, gai honi buruz Irakasle Elkartek eginik duen planaren berri.

Lehenengo eta behin, haurrek berek sortu, egin, bildu eta berek moldatu behar dutela ikastolan behar den material eta liburu (ipuin, elkarrizketa, ikasgai, irakurgai...) esaten genuen. Horretan gaude, bai, horixe baita\*, gure ustez, biderik jatorren bat, ikastolak nahiz euskarak aurrera egin dezan nahi baldin badugu.

Honek, gaur egun pedagogiaren eremuan\* erabili ohi diren teknikez jabetzea eskatzen dauku, eta irakasleok egunean edo astean zenbait\* ordu ikasteko har dezagula, ez baita\* aski\*, besterik gabe, borondate ona edo norberaren dohaiak.

Honen parean eta elkarren osagarri (trena ere burdin\* lerro bitan ibili ohi da) genuen seinalatzen beste bidea. Haurrak ezin du dena berak asmatu, ez eta dena berak moldatu; beste lekuetan egin denaz eta egiten ari denaz baliatzen ere jakin behar dugu. Adibidez: haurrak fitxa bat egin dezan, edo lan bat prestatzeko, bere pentsamendua lantzeko, gaia sakontzeko eta osatzeko, edo ikertzeko\* eta aztertzeko, beharrezko ditu liburuak; eta ez edozer liburu, bere maila eta adinera\* moldaturiko liburuak baizik.

Beraz\*, ikastoletako liburutegiak aipatzean, gisa honetako liburu-eraz ari gaituzu; eta hauetarikoekin nahi dugu, ikasgela bakoitzean, bakoitzaren mailako euskal liburutegi bat munta\* dezaten ikastolek.

Liburu mota bi ikusten ditugu: bata, gai orokarrak\* deitzen dugu. Adibidez, uraren prozesoa gaitzat harturik (lurruna-laino, lainoa-euri, euria-iturri-hibai-itsaso...), liburuxka bat moldatu nahi badugu, edo euskaraz pentsaturik egingo da, edota, berdintsu dena, erdaratiko itzulpen egoki bat izango. Bestea, gai bereziak deitzen dugu. Adibidez, liburua ola-lantegiez moldatu nahi bagenu, ezin gai orokar baten itzulpena bezala molda, zeren\*, gai berezia denez, ikuspegia ere geure geurea eskatzen baitu.

Urtebeteren buruan, gu nor bagara behintzat, hogeitamar bat liburuxka eman behar ditugu argitara, gai nagusiekin osaturik. Esan nahi baita\*, ikuspegi zabaleko gaiekin moldatuko ditugula. Papera nola egiten den, edo txapelak edo motorrak eta abar baino lehen, industriari buruzko gai nagusia jorratuaz, liburuxka bat egitea premiazkoago zaiku; eta horrela, beste zenbait\* gai nagusi harturik, hogeitamar bat liburuxka osatzea da gure lehendabiziko lana.

Behin puntu honetara heldu garenez gero, aipatu beharko genuke, liburuak zer-nola antolaturik doazen eta zer partetan emanik diren. Freinet-en ideiarri jarraituaz, bederen\* lau parte ukanen\* luke liburu bakoitzak. Exenpluz, har dezagun gaitzat: arrantzaleak.

- a) **jakintza partea:** arrainak, ontzjak, arraina nola harrapatzen den, eta abar.
- b) **geografia:** nondik nora ibiltzen diren arrantzaleak, portuen izenak...

c) **kondaira:** lehen nola, gaur nola eta zer.

d) **gizarte alderdia:** zer bizimolde, harreman, arazo daduzkaten arrantzaleek.

Hona hemen lau parte berezietan liburuaren egitura, eta haurrak gauza batzuk buruz ikastea baino zerbait gehiago lortu nahi lukeen sistema.

Berehalako batetan argitara emango direnak:


- 1) **irakurketa hastapenak\*:** 5-6 urtetako haurrentzat lau liburuxka, oraingoz.
- 2) **irakurgai errazak:** 6-7 urtetakoentzat.
- 3) **matematika hastapenak:** 4-6 urtetako haurrentzat.
- 4) **ikasgaiak:** 8-9 urtetakoentzat, aipatu ditugun gai nagusi hoietako lau liburuxka.

Esan beharrik, euskara batuan eginga izanen dela, argitara emango dugun guztia. Edizio bakarra, beraz\*, eta ahalik kriterio zabalez emanik, eskualde\* guztietara hedatzeko\* moduan.

Ikasgela bakoitzak du seguraturiko edizioa, 4-5 aleren harpidedun eginaz eta horrela liburutegiari hasibidea emanaz. Gisa berean, gurasorik balitz, harpidedun egiteko prest, are\* hobe denontzat. Mementoan\*, ba liteke aski\* lan gaitza gertatzea harpidedunen arazoa; baina, ikastolak eta jendearen pentsamoldea egiten doan heinean\* bezala egiten ikusirik, ez dugu bidea hain ilun ikusten.

### BARKAIZTEGI

daduzkate, **daukez**, dauzkate  
dauku, **deusku**, digu  
dezagun, **daigun**  
dezan, **daian**  
dezaten, **daien**  
gaude, **gagoz**  
zaiku, **jaku**, zaigu



## ANAITASUNA

Bidaltu eidaze "Anaitasuna" kontrarenbolsoz.

Izen-abizenak ... ..

Bizitokia ... ..

Herrla ... .. Probintzia ... ..

Urteko arpidetza eskuz nahiz jiroz . . 150 pezeta  
Kontrarenbolsoz . . 160 »

# LARRESOROREKIN HIZKETAN

—Emaiguzu zeure eritzia euskal agerkeriei buruz.

—Ene ustez, aurrerako urrats\* haundi bat egiten ari\* dira. Gure hizkuntza kaletartu egin dute; biziera modernoko kezka euskaraz erabiltzen lagundu gaituzte; eta hau nahi-ta-ézko baldintza iruditzen zait hizkuntzaren etorkizunerako.

Euskararen batasuna eta gaitasuna, euskara erabiliak lortuko ditugu; eta ez ditugu bestela lortuko. Xabier Kintanak Bilbon zorrotki esan berri duenez, euskararen batasuna eta gaurkotasuna behar ez dituztela diotenean, erdara batua eta gaurkotua erabiltzen dute barra-barra, eta euskara sekula ez: ez baturik ez euskalkirik\*. Nondik nora sendituko lukete batasunaren beharra?

—Esaiguzu, ANAITASUNAn, zure ustez, ikutzen ez diren gaiak.

—Ez dut hutsune nabarmenik nabaritzen\*.

—Zein izan behar luke, zure ustez, ANAITASUNaren zereginik behinena\*?

—Ahal den neurrian, gaurko euskaldunen kezken eta beharren erantzule zintzo eta egiaitza izan. Ez zaitezte modaren morroin izan.

—Ba ahal duzu ezer ANAITASUNaren kontra?

—Ezer larrik\* ez. Euskal mitologia ankaz gora botatzea ongi iruditzen zait; baina modan dago eta erraza da. Erdal mitologia, ordea\*, ba dago, gaitza; eta ez da salatzen. Kontuz, hau inoiz aurpegira egotz\* ez dakizuen.

—Emaiguzu zeure judizioa euskal elizgizonei buruz.

—Euskal apaizak, mundu guztiko apaizak bezala, fede-krisi sakon baten ondorio dira. Eta, fedea ahultzean\*, bestalde, Elizaren jokabide makur askoren itsusia agertu zaio askori.

Baina, kristau fedea galdu ondoren ere, galdua duten apaiz eta fraileek hiru oinarri hauek gordetzen dituzte, hala ere:

1. Gizonak salbatzeko eta ez-jakintzatik jaregiteko\* egarria.
2. Izkribu batzuen arabera munduaren gaitzak argi\* daitezkeen ustea.
3. Frogaturik\* ez dauden gauzak itxuren kontra sinesteko eta onartzeko ohitura.

Beste bat erants\* daiteke agian\*: apeztegian jaso duten kristautasuna tomista dela, eta ez agustinista: alegia\*, kristau razionalismoa edan dutela, eta ez kristau kezka.

Krisian erortzen\* direnak, horretara, politika arazoetan askotan haurkerian eta analfabetismoan abiatutik, mundutar milenarismoan erortzen dira bete betean. Hots\*, milenarismo horren iragarlea gaurko Euskal Herrian Karl Marx da.

—Esaten dute, «Branka» izeneko aldizkaria zuk zuzentzen duzula, zure semea dela. «Branka» sozialista aldizkari bat bezala agertzen da. Zer da zuretzako sozialismoa, bereziki Euskal Herrian?

—«Branka» sozialista talde baten aldizkaria da. Ene ustez, kapitalismoaren barruan ez dago justiziarik, eta gizartea osoki dago diruari saldua. Sozialismorik gabe, gizona zapaldua dago nahi-ta-nahi-ez. Aukera, bestalde, garbi dago: edo monopolismotik erresuma-kapitalismora; edota autojestloko sozialismoa. Aukerak ez du enetzako dudarik uzten: sozialismoa autojestloa. Alegia\*: sozialismoa behetik gora zuzendua, eta ez goitik behera, kuartelean bezala. Kapitalismotik atera behar da, dudarik gabe.

Baina gure soziedadearen akats guztiak kapitalismoari erastea txorakeria hutsa da. Berriz ere, Georges Friedmann-en liburua irakurtzeko eskatuko diet irakurleel. Soziedadearen gaitz asko, sako-

nenak hain zuzen, ez dira ekonomia-ondorio. Ez da egia. Marxismoa xinplekeria hutsa da; eta xinplekeria hutsa den frogak\*, Praga, Stalin, Berlingo murrua\*, Budapest eta Cubako eboluzioa dira. Eta hori guztia «errebisionismo»aren ondorioa baldin bada, marxismoa da osoki errebisatu behar dena, utopia hutsa dela garbi agertu baita\*, nagusitu den herri guztietan. Errebisatu... edo zokoratu.

—Zenbait pentsatzailek «antikomunista» zarela esaten du. Zer diozu horretaz?

—Zer da komunismoa? Mundutar «parusia» edo parabisu bat baldin bada, Marxen fededunentzako uztea nahiago dut amets horiek: Errege Magoetan sinesteari aspaldi utzi nion.

Eta, komunismoa baldin bada Pragan onar-arazi dena, antikomunista naiz, dudarik gabe.

—Inoiz deklaratu izan duzu, Camus-zalea zarela. Zer esan nahi du horrek?

—Ez dakit zein aldetara esan nuen. Camus artista dut malteenik.

—Zer helburu izan duzu, nobelak eskribitzerakoan?

—Egiazko giza-arazotzat dauzkadan batzuk era horretara presentatzea.

—Zer esan nahi izan zenuen «Peru Leartzako» eleberriaz\*?

—Gizon modernoarekiko budismoak duen erakarpena\* sendi-araztea. «Hippy»ek Indiara jotzen dute; eta aukera honek oso behar sakon bat erakusten du. Indiako zuhurtzia zaharrean erruz\* ikas dezake gaurko gizonak: gero eta sinetsiago nago honetan.

—Ba ahal duzu orain, beste eleberririk idazteko asmorik?

—Ez oraingoz. Beharbada, noizpait, kondaira-nobelaren bat, Euskal Herrian oratua\*.

—Euskal Herriatik kanpo bizi izan zarenez gero, Euskal Herri horren egoera ondo ezagutzen ez duzula esaten da: hau da, inoiz fantasmak ikusten ote dituzun. Zer diozu horretaz?

—Inork ez du, «fantasma»rik sekula ez ikusteko dohain miragarria; eta nik ere ez. Kanpoan luzaz egonda, beste informazio horrek bere kutsua uzten du. Baina nik somatutako «fantasma» batzuen izen-deiturak eta bizilekuak, nahi duzunean emango daukizuet.

«Fantasmak» ikustea arrisku bat da, zalantzarik\* ez. Ohe azpiko kokodriloaren «konplejoa» izatea, beste arrisku bat. Eta ba dakizue istorioren amaia: ohe azpiko kokodriloak jan egin zuen, halako batez, «konplejoa» zuena...

—Esprika zazu zer den herbesteratua egotea, eta zer eskatzen diozun bere herrian bizi den gizonari.

—Herria bihotzean daramanarentzako, herbesteraturik egotea oso gauza triste da alde askotatik. Herria bihotzean ez daramanarentzako, ez. Herri-mina duten horientzako, beraz\*, tristeena beharbada, urruti-minari datxekon\* tristura bera ezartzen\* gaitzea da. Klerkegaard-ek esaten duena datorkit burura: etsituetan etsiena etsi\* duela ez dakiena da». Hauxe da herbesteratuen patu\* hitsa\*: azkenean, erazitako\* landarea bezala, alferrik ihartzen\* direla, ihartuak direla ohartu\* gabe.

Bere herrian bizi den gizonari gauza bat beharbada: arrantza-leek botatuko hamuetan eta garnatetan\*, otoi, ez koska egiteko.

daude, dagoz  
dauzkat, daukadaz  
daukizuet, deutsuedaz, diz-  
kizuet  
dezake, daike  
diet, deutset  
lukete, leukee  
nion, neutsan  
zaio, jako  
zait, jat



# OSABAORDEAREN LARRIALDIAK

Joan dan Gabonaldian, historia larri bat gertatu izan jat, Osa-  
baorde zahar honi, ene lepoaren gain.

Ene anaiordeko zanak ba dau alaba lirain bat, Katea Izenekoa.  
Katea hau umezurtz gelditu zan gazterik; eta ene emazte eta bion  
ardurapean utzi euskuen, Herriko Parroko eta Alkatearen erabakiz.

Ba joian Katea neskatilla hau handi eta eder eginaz: gorputz  
liraina, buru bizkorra, arima argia, ondasun aberatsen jabea... dana  
xarmangarria\*. 18 urte zituanean, gazte prestu batek tentatu eta  
adiskidetu eban. Mendi dau bere izena.

Baina, ene lobaren bila eta ondoren, ba dabilta beste mutil  
gazte asko ere, haren edertasun, bizkortasun eta aberastasunen  
gose-egarriz.

Lautada\* izeneko mutil gazte batek, Mendi mutilaren eta Ka-  
tea ene lobaren elkarrenganako adiskidetasuna apurtu ezinez eta  
Kateaganako amodio-maitasunez egon ezinik, Mendi mutila atze-  
man eta harlanduzko gaztelu batera botatzeko agintzen deutse  
bere morroiak.

Orduan, Mendi ta Lautada mutilen eta beren familien aurre-  
tiaz zan burruka eta ikusiezina, Mendiren giltzaperatzearekin, haun-  
ditu, zitaldu eta su gorritan jartzen da.

Egia esan, Lautada mutila ene adiskidea zan, oso gure etxe-  
koa; baina, niri neuri, ez eustan larregirik\* ardura, nahiz Mendire-  
kin nahiz Lautadarekin Katearen ezkontzeak.

Baina —eta seguru asko Lautadatarrekin neban adiskidetasu-  
nagatik edo— ni, Katearen osabaordeko zahar hau, atzematea era-  
baki eben Menditarrek. Eta, esaten ebenez, ez ninduen libratuko,  
harik eta Lautadatarrek Mendi aske utzi eta berriz ere bere maita-  
teagana hurbiltzen\* laga\* arte.

Menditarrek euren esku hartu ninduean, oso bildur nintzen,  
eta ene bizitzako azken egunak etorri ote jatazen pentsatu neban.  
Izan ere, Lautadatarren adiskidea nintzenez gero, eta Menditarrek  
Katea bihotz, arimaz eta gorputzez eurentzat eukenez gero, bildur  
nintzen, bai, hilgo ote ninduen, Mendi aske uzten ez baeben Lau-  
tadatarrek.

Atzeman ondoren, Apez baten etxera sartu ninduen Mendita-  
rrek. Gau ta egun jagole\* batzuk nituan inguruan, eta gau eta egun  
hareek luzeak eta larriak izan jatazen.

Gau batez, horregatino\*, Apeza lotan zalarik eta jagoleak hor  
nonbait telebisioa ikusten, bildurraren eraginez, libertade gosez,  
leihu bat ireki ahal izan neban, eta, zelaira salto eginaz, ihesi  
joan nintzen.

Ez neban paraje ha ezagutzen, eta, nora joan ez nekialarik,  
taberna batera sartu nintzen, neure egoera larriaren berri emanez,  
laguntasuna aurkitzeko uste osoaz. Han egozen gizonel Katearen  
Osabaordea nintzela esan neutsen, eta Menditarrek atzeman eta  
giltzaperaturik nengoela. Justiziaren zaindariengana eroango nindue-  
la uste neban.

Gizonok, ostera\*, ene egoera hestu eta urrikarriaren berri en-  
tzun arren, mahai baten inguruan bibrildu ziren, esanez: «Justizia-  
ren zaindariengana eroaten badogu, Mendi toki txarrean uzten do-  
gu. Berrito Menditarrengana eramaten badogu, ordea\*, Osabaordea-  
ren bitzta arriskuan jartzen dogu».

Luzaro hitz egin ondoren, Menditarrengana berriz ere eroatea  
erabaki eben. Ate-joka eta aupadaka Apeza Iratzarri eben, eta  
Jagoleak erne jarri zituen, guztiok ene ihesarekin aho bete haginaz  
geraturik.

Tabernako gizonok, Mendiri edozer gertatu arren, ni bizirik  
utziko ninduela zin\* egiteko eskatu eutseen ene jagoleak, ni ber-  
riro eurenganatzeta nahi baeben.

Ene jagoleek, ni non izkutatuta nengoan gizon askok ekiela  
kontuan harturik, Apezak hatzamarren puntan gora jasorik eukan  
gurutzearen aurrean eta euren izenean, zin egin eben, ez ninduela  
heriotzera eramango, ez ezer txarrik egingo.

## TXIKITO

deutse, die  
eban, zuen  
eben, zuten  
egozen, zeuden  
ekien, zekiten  
eukan, zedukan, zeukan  
euken, zedukaten, zeukaten  
euskuen, zeukuten, ziguten  
eutseen, zieten  
jat, zait  
jatazen, zitzaizkidan  
joian, zihoan  
neban, nuen  
neutsen, nien

## BERMEO

### Euskal analfabetuak

«Correo Antoniano»-ren apirilko zenbakian, eskerrak ematen  
deustez nire oraintsuko berbakatik. Ez dau merezi, gazteak! Eus-  
kalgintzako arlo honetan zerbait egiteko, adorea hartzera mugitu  
bazaituet, pozik egongo naiz. Ba dakit, euskal analfabetuak zarea;  
baina hori ez da zuen errua, eta ez zarea lotsatu behar. Euskara  
ondo dakienei eskatzen deutsezue laguntzinoa. Ondo deritxat. Bal-  
na barkatu, postura hori zeredozer pasiboa iruditzen jatala badino-  
tsuet. Ez egon inoren begira. Idatzi dakizuen modura, oker batzuk  
gora-behera. Eta bidea ibiliz egiten dan legez\*, idatziaz ikasiko  
dozue idazten ere. Orduantxe bakarrik izango da «Correo Antonia-  
no» Bermeoko herriaren aldizkari bene benetakoa. Aurrera, ba. Ez  
daijala inork esan, Bermeoko gazterla eragozpenen aurrean lotu  
egiten dala.

### Alfabetatze kanpaina

Mungikoa amaitu ondoren, alfabetatze kanpaina bat egiteko  
asmoa dago Bermeon. Irakurten deustanari esan beharrik ez dau-  
kat, zein premiazkoa dan gure herrian holako kanpaina bat egitea  
gazteen artean. Ea, «Antoniana»-ko neska-mutilak. Hemen daukazue,  
zeredozer ikasteko aukera ezin hobea. Eskaini zeuen laguntzinoa  
Euskaltzaindiko alfabetatze kanpaina horren eratzaillei.

### Eubako jaialdia

Maiatzaren 20an, Asentsio egunean, Eubako Pasionistek euskal  
jai eder bat eratu eben, San Paulo Gurutzekoaren ohoretan\*. Jen-  
detza haundia bildu zan Euban egun haretan, nahiz eta eguraldiak  
lagundu ez.

Txistulariak, bertsolariak eta abar izan ziren. Baina jaialdi hori  
entzutetsuago egin ebana, euskal kanta lehiaketa\* izan zan. Eta  
nik Bermeoko albisteen\* artean aipatzen badot, horrexegatik da.  
Hain zuzen, euskal kanta lehiaketa hori, Lupe Fernández Bilbao,  
Bermeotar neskatillak irabazi eban. Bere hamabi urte zoragarriekin,  
eta, gaur egun ohi dan legez, kitarrak baliaturik, hainbat lehiak-  
deren artean izan da garaila. Zorionak, Lupe. Bide ederra daukazu  
aurrean.

### Zilarrezko ezteiak

Ba dauka Bermeok, zeruko bedeinkazioak erakartzeko, tximisto-  
rratz indartsu bat: Monja Klarisen Komentua. 1962.eko urtarrilean\*  
inauguratu zan komentu hau, eta, gaur, hamairu monja bizl dira  
haren ormen\* klausura barruan, otoitzari lotuak eta baita lanari  
ere, josteari bereziki\*.

Hamairuen artean, lau dira Bermeotarrak, eta gainera —nork  
susma!— ANAITASUNAREN irakurle zintzoak.

Honeetariko batek, munduan Justa Llona Izenekoak, maiatza-  
ren 21ean, bere profesioiko 25. urtea bete dau. Zorionak, arreba  
Justa; eta, beste hogeitabost urtean ere, Jaunaren aurrean otolitz  
egin ahal daizula, zeure eta geure Bermeoren alde.

### Pintura lehiaketa

Instituto Teknikoak antolatuta, herriko bankuen eta Arraintzale  
Kofradiaren laguntasunaz, eta «Barrueta» pintore elkartearen zu-  
zenbide artistikoaz, ume eta gazteen arteko pintura lehiaketa bat  
egin zan apirilaren azken igandean\*.

Irabazleel sariak emateko, maiatzaren 23an jaialdi bat egin  
dabe, Ercilla zinetokian, herriko euskal kantari gazteakaz. Oso al-  
pagarria izan da ekintza berri hau, eta jaialdi guztiz egokia eta  
atseginezkoa. Urtean urtean egiteko asmoa azaldu dabe eratzalleek.

A. P. B.

# Opioa: Herriaren erlijio berria

Denok dakigu, herria bere nahaspila ta nahigabeetan iharrosi\* ordez engainatu eta eroapenean\* loarazi egiten duen fedearen kontrako esaldi gazi bat: erlijioa herriaren opioa da.

Gehienetan Marxentzat eduki izan ohi arren, askoz lehenagoko ateraldi horrekin arrazionalistak abiatu ziren, erlijioak arrazoimenaren eskain-eskariak mitologiako ipuinekin itoazten bide\* zituela ta.

Bauer anaien eskribuetan (hoben kontra idatzi zuen Marxek bere **Familia Santua**), eta Marx-Engels komunismoratu zituen M. Hess eta Feuerbach-en idazkietan ere, erruz\* aurkitzen da ideia hori. Eta, XIX mende\* hasieretan, usadio arruntekoa\* dirudi: Hegel idealistak bezain ongi erabiltzen zuen Holbach materialistak, biak Marxen aitzindari\* garrantziko. Bekatuen barkamenari «kontzientziaren opio» zeritzan\* Kant-ek ere.

Ingalaterra eta Chinaren arteko opio-gudateetan (1840-1842), guztiz «in» zegoen esaldi hori, orain inori «alienatu» edo «burgese-kokkor» esatea bezain modan. Bruno Bauer-ek 1841.ean esaldi horren zentzua adierazten zuenez, gizatasun biziaren indar guztiak loarazteko erabiltzen ei\* zuen erlijioa Prusiak, «erresuma\* kristautetan kristauenak». Eta Goethek berak ere garrarki jorrazten zituen, Barmen hiriri noizbait pietismoaren habia epelenaren fama haundia egingo zioten profeta gozo baten «prediku narkotikoak». Barmen Engels-en sorlekua da, eta Engels pietista-semeak ere predikuan satira piperdun asko utzi dauku.

Aldi berean, hala ere, laster altxatu ziren, esaldi horri esan-nahi positiboa ateratzen zekiten bozak ere: eta negatiboa baino lehenagokoa ere izan daiteke esannahi positibo hau. Gizon oinazetuak narkotikoa onuragarri\* ta gozagarri ta beharrezko omen\* duela ta, batez ere Freud-zale askok zentzu positiboan berrinterpretatu izan dute gorabehera hori. Prometeismo hutsa ei\* baita\*, sofrikarioetan\* inolako gozagarririk gabe pasatzen enpeinatzea. (Heroismoaren eta erokeriaren arteko mugak beti lausoak izan ziren. Hegelenganaino behintzat, zentzu kontrario biok zeduzkan esaldi dohatsu horrek. Gero, erlijioak opio onurakor baino kaltegarri gehiago zedukalako agian\*, zentzu positiboa amatatu\* egin zitzaion ateraldi dohakabeari.

Baina dialektikak halakoxe mainak daduzka; eta, nola bere gurasoek horretantxe trebatuta dena aldrebes jartzen dibertitzen den, eta bere jolas bihurrietan ez berehalakoan aspertu, horixe ere atze-

koz aurrera jarri zeukun. «Opioa ere erlijio bat da», protestatzen zuen, gaitzak jotako Marxen lagun Heine-k, bere lasto-kamainan. (Bestalde, Heine-k ere mandolinarekin-eta deskribatzen ditu euskaldunak, balak baino gogorrago hemengo barbantzuak, agoteak bihotz barrendik gorrotatuz hemengo jendea, zorritz josita euskal etxeak, baina «dama ederrak» euskaldunak).

Halako batetan, erlijioa bera ere atzekoz aurrera jarri zen: bederatziruarenak eta ezti-jarioak, leuntasun-intziriak eta aingeru-zotinak ahaztu bapatean\*, eta Marxen enziklikei eta Maoren dotrinari ekin zion. Berandu, bai, baina ez ei\* da inoiz beranduegi, garaiz ailegatuz gero. Erlijioa, gizatasun-nahiak molteltzeko ez baina, sutarazteko ere kartsu azaldu zen. Eta Camilo Torresen edo Zamorakoen Eliza katolikoan baino ez batere gutiago Vietnamgo budisten sinesmenean. Erlijioak ez dio jadanik\* inori mundutik ihes egiten utzi nahi, eta bai guztiok munduan buruz behera murgilarazi.

Baina dialektika listoa bada, iheskeria ez da tontoa. Azkenean, «zerua lurreen» atondu\* nahi zuen gure produzio ta kontsumo gizaldiaren zeru lurta hori lehenbailehen eta oso-osorik dastatzeko\* larriak, jende ta batez ere gazte asko zerua berek produzitu ta kontsumitzera ekarri du. Eta zeru hori opiatoekin produzitzen da.

Bakar-bakarrik, erlijio berriaren zeru kimiko honek, loarazi ezetik, hilarazi ere errazegi egiten duela: Alemanian bakarrik, mila ta gehiago hiltzen dira urtero psikodeliko ta opiatoen mende\*.

Azkeneko gomendio\* bat interesatuari: «trip» (drogaren zora-bioari deritza **trip**, eskolatu gabekoarentzat argitzeko) luzeena, 72 orduko «trip» borobil eta bete-betea eragiten duen drogaren produzitzailea USAko napalm-fabrika ezagun bat da.

JOSE AZURMENDI

daduzka, **daukaz**, dauzka  
dauku, **deusku**, digu  
dio, **deutso**  
zedukan, **eukan**, zeukan  
zeduzkan, **eukazan**, zeuzkan  
zekiten, **ekien**  
zeukun, **euskun**, zigun  
zion, **eutson**  
zioten, **eutsoen**  
zitzaion, **jakon**

## EIBAR

### Peli Aldazabal zenaren oroimenez IX. euskara lehiaketa

Eguraldi eskasa zen Arraten, maiatzaren 23an. «Ohi denez» beharko dugu esan, aspaldiko urtetan ez baitaiku honako egun honek besterik eskaini. Hala ere, euri ufala\* eta guzti, ume mordoxka bat bildu zen hamar eta erdietan Arrateko ermitaren atarian; eta umeak ezezki, Eibar Club Deportivo-ko «Kezka» dantzari taldea, andereñoak, gurasoak, senideak, adiskideak eta gainerakoak.

Guztiz, Gipuzkoa nahiz Bizkaiko berrogeita zazpi ume agertu ziren lehiaketa\* orduan, alegia\*, Ataun, Zaldibi, Legazpi, Lazkano, Elgoibar, Eibar, Ermu eta Bilbokoak. Andoni Idoigaren zuzendaritzaren pean, mahaiakoak Libe Sarasua, Karmele Mandiola, Margarita Murgizu, Jose Luis Ugarteburu, Luis Alberto Aranberri, Imanol Larrañaga eta Serafin Basauri zirelarik, irakurketa-, idazketa- eta gramatikari buruzko lehiaketa prestatu zen, umeak bi taldetan banatuta. Hona hemen talde bakoitzeko lehen hamarrak:

#### Nagusien taldea (11-14 urtekoentzat)

1. Asier Etxeberria. Elgoibartarra. 14 urte. 42,5 puntu. Txapela, Eibarko Udalak\* eskainitako irudia, 2.500 pezeta eta saria.
2. Patxi Xabier Bazterrika. Ataundarra. 12 urte. 40,5 puntu. Txapela, 1.500 pezeta eta saria.
3. Maria Dolores Etxeberria. Zaldibiarra. 13 urte. 40 puntu. 1.000 pezeta eta saria.
4. Odile Kruzeta. Eibartarra. 13 urte. 38 puntu. 500 pezeta eta saria.
5. Josune Beldarain. Bilbotarra. 12 urte. 33 puntu. 500 pezeta eta saria.
6. Begoña Biar. Bilbotarra. 13 urte. 27 puntu. 500 pezeta eta saria.
7. Begoña Bazterretxea. Bilbotarra. 11 urte. 25 puntu. 100 pezeta eta saria.
8. Amaia Mujika. Bilbotarra. 12 urte. 24,5 puntu. 100 pezeta eta saria.

9. Nekane Aranburu. Bilbotarra. 13 urte. 24,5 puntu. 100 pezeta eta saria.
10. Joseba Andoni Beldarrain. Bilbotarra. 11 urte. 24 puntu. 100 pezeta eta saria.

#### Txikien taldea (7-10 urtekoentzat)

1. Asier Laspiur. Eibartarra. 10 urte. 28,5 puntu. Txapela, 1.000 pezeta eta saria.
2. Agurtzane Garzia. Elgoibartarra. 8 urte. 25 puntu. Txapela, 1.000 pezeta eta saria.
3. Miren L. Urzelai. Legazpiarra. 9 urte. 24,5 puntu. 500 pezeta eta saria.
4. Jon Iriondo. Elgoibartarra. 8 urte. 23,5 puntu. 500 pezeta eta saria.
5. Itziar Beldarrain. Bilbotarra. 9 urte. 22,5 puntu. 100 pezeta eta saria.
6. Iñaki Arkarazu. Lazkanoarra. 10 urte. 22,5 puntu. 100 pezeta eta saria.
7. Maria Lurdes Peñalba. Elgoibartarra. 9 urte. 22,5 puntu. 100 pezeta eta saria.
8. Elisabet Kruzeta. Eibartarra. 8 urte. 21,5 puntu. 100 pezeta eta saria.
9. Victor Alberdi. Elgoibartarra. 8 urte. 21 puntu. 100 pezeta eta saria.
10. Arantza Gorosabel. Elgoibartarra. 8 urte. 20 puntu. 100 pezeta eta saria.

Batez beste, oso maila oneko lehiaketa izan dugu bederatzigarren hau. Umeak primeran prestatuak etorri zaizkigu. Guztiok merezi dute txalo-beroena. Beharbada, ikastolaren bat bereiztu behar badugu, ezin dezakegu hemen Elgoibartarrak aipatzeke\* laga. Zorion sutsuenak nagusitxoei, umei eta ezkutuan lanean ari izan diren guraso eta andereñoi.

Datorren urtean ikusiko dugu elkar Arraten. Ez etsi\*, gazteok Kontu izan, datorren urtean bizikleta bana irabaziko dutela lehen ateratzen direnek. Datorren urterarte, bada. Ea eguzkiari ere gutun\* bat egiten diozuen, bera ere etor dakigun. Bai, ote?

ALBISTARIAK

# Irakaskintza sistema ofiziala eta irakaslea (2)

Aurreko artikulu batean, pedagogiaren aldetik ikusi genuen problema hau. Baina ez da pedagogiazkoa bakarrik, bai eta gizarteko problema bat ere.

Gizarteko problema izanik, beraren bi alderdi ikus ditzakegu: gizarteari datozkien ondorenak, eta gizartean dauden arazoak. Lehenengoa utzi egingo dugu, eta bigarrena aztertuko. Hau da: Nola uler liteke Institutoetako euskal irakasleen absentismoa?

Normalki, Instituto batean irakatsi ahal izateko, Unibertsitateko ikasketak (hirugarren mailako estudioak) eginak ukan behar ditu irakasleak. Ikasketa hauei buruz, Espainiako «Instituto Nacional de Estadística» delakoak, 1969. urterako eman zituen zifrak hauek ziren: Madrilekoak aparte, Kataluniakoak ziren ikaslerik gehienak, eta gero Bizkaikoak. (Hirugarren mailako estudioak edo ikasketak diogunean, Unibertsitate eta Eskola Handiak esan nahi dugu). Hala ere, hirugarren mailaraino joaten diren Bizkaitarrak asko izan arren, irakasle guti sortzen dira gure artean. Honen arazoia hau izan liteke: gure herriko jendeek ez dute irakaskintzaren problema ikusten, eta beste bide bat lasai hartzen dute; edo, nahiz eta problema hori ikusten duten, interesgarriagoak iruditzen zaizkie beste lanbide eta bizimodu batzuk.

Bilboko Eskola Handiak (Ingeniero, Perito, Komertzio... Eskolak), bai eta Deretxo eta Ekonomiako Fakultadeak ere betarik daudela, bistan da. Eskola hauetara datozenek ez dihardute irakaskintza arazoetan. Bestalde, gure herrian, gaurko egoeran, bakoitzak bere buruari galdetu behar lioke, ea benetako eskubiderik dadukan, edozein lanbide edo profesio aukeratzeko. Zeren\* herriaren etorkizunari batez ere begiratu behar baitiogu. Baina, gure oraingo gizarte honetan, ez da hori gertatzen. Egia esan, bakoitzak berari egokien zaiona gehiago bilatzen du, herriari komeni zaiona baino. Bakoitzari komeni zaion lanbidea, diru gehiago ekartzen duen profesioa izaten da, noski\*; eta, guztiok dakigunez, orain arte behintzat, irakaskintzak ez du inor aberats egin. Horregatik, irakaslego\* soila\* ez da onartua izan gure artean. Euskal Herriko gizartean, ez dago ekilibriorik: aspalditik tekniko gehiegi ditugu, eta irakasle guti.

Horrez gainera, tekniko hoietariko askok, irakasleen profesioari ezezik, irakaskintza eta pedagogiari berari ere burla eginez, zuzendu nahi izaten dituzte pedagogiazko problemak. Bereziki\*, ikastolak gildatzen ausartzen\* direnean, lehenengoak izaten dira, andereñoel normak ematen eta hizkuntza arazoez batere bildur gabe mintzaten. Irakaskintza benetako profesioa da askorentzat; tekniko hoientzat, ostera\*, «hobby» bat baino ez da, eta, batzuetan diruaren jabe direnez gero, zapaldu egiten dituzte benetako profesionalak. Honela, mito bat zabaltzen da gure herrian: «Irakasle onik ez dugu, irakaslerik guti dugu». Baina sasi zuzendaririk asko dugu. Eta gauzak ez dira hobetuko, salatzen ez ditugun bitartean.

Amateur hauei, irakale profesionalak garenok lelo batzuk iruditzen gataizkie nonbait. Gure herriko amateurismoaz luzaro mintza daiteke, zoritxarrez. Irakasleak ez gara, ezertarako, beste zientzietan sartuko: barregarria litzateke. Edozein teknokrata, ostera\*, irakaskintzan eta pedagogi arazoetan sartzen da, lasai. Gaur egun, Euskal Herriaren ahulezia\* gainditzeko, guztien laguntza behar dugu. Baina amateurismoa benetan kaltegarria da horretarako.

Irakaslegoak\* gizon eta emakume asko behar du, baina benetako irakasle izatekotan eta ez amateur.

Sarriegi\* entzuna dugu, euskaldunok ez dugula irakasteko jorarik. Hori ez da egia. Joera hori, bokazio hori, lor\* daiteke, nahi izanez gero. Inoiz ere ezin ardiets\* daitekeena, hauxe da: gure bizitzan bi zeregin, biak batera, sakonki eta zientifikalki eroatea\*. Ekin bekio bakoitza bere lanaril!

Bi dira bereziki\*, irakaskintza helburutzat\* duten karrerak: Zientziak, eta Filosofia eta Letrak. Orain, Zientziak Bilboko Unibertsitate Autonomoan ikas daiteke.

Filosofia eta Letrak, Bilbon, Deustuko Unibertsitatean irakasten da, zazpi urterik hona. Egia esan, gero eta ikasle gehiago etortzen dira, oso guti izan arren, adibidez Ingeniero Eskolara doazenekin kanparatzen baditugu. Donostian ere irakasten da, Jesuiek zuzentzen duten E.U.T.G. delakoan. Gasteizen ere bai. Eta Iruinean Opus Dei-koek dihardute horretan. Dakidenez, Deustuan behintzat,

Jesuiek diru laguntza ematen diete ikasle batzuei, aurrera joateko. Dena dela, ordaindu beharra, eta ez guti gainera, eragozpen bat da, Filosofia eta Letrak ikasteko. Gure Bizkaian «renta per capita» altua dugu. Zergatik hemengo teknokratek ez diete laguntzen —diruz bederen\*— ikasle batzuei, pixka bat lasalago bizi daitezen? Mezenasik ez ote dago gure herrian, irakaskintza zaletasuna sor erazteko, edo, gutienez, zale direnei diru kezka kentzeko? Beraz\*, gizarteko problema baten aurrean gaude, zeren\* lotsagarrikoa baita\*, beste ekintzetan hain aberatsak izanik, irakaskintza arazoetan hain pobreak izatea.

Azkenez, Filosofia eta Letrak (eta Zientziak ere nonbait) bukatzen\* dutenen artean, oso gutik egiten dituzte oposizioak; eta Institutoetan dauden irakaslerik gehienek interinoak bezala dihardute. Mota honetako irakasleen problema oraingoz alde batera utzita, azken urte hauetan Instituto berri asko Euskal Herrian sortu direla aitortu behar dugu; baina katedra asko edo ia guztiak, herrikoak ez direnek oposizioz hartu dituzte. Beste zenbait\* herrialdetan\* lizentziatu asko dira. Salamancan, esate baterako, lizentziatuen inflazioa dago, eta haiek ez dute beren herrian lan egiteko lekurik. Hori dela ta, hango lizentziatuek oposizioak egiten dituzte; eta irabazten duten lekua bizitza guztirako da. Ene ustez, guti garelako, aterabide bat geratzen zaiku: alferkeria lepotik kendu eta oposizioak irabazi.

Ene aldetik, frantses hizkuntza eta literaturaren oposizioak egiteko, inor prest balego, ahal dudan laguntza guztia emango nioke: programa, gaiak, eta abar. ANAITASUNAREN bitartez idatz diezaket. Kontuan eduki behar da, hurrengo oposizioak, oraingo plan honetan, azkenak izanen direla.

Ikastoletako lana txalogarria eta beharrezkoa iruditzen zait. Baina ez garateke\* inoiz damutuko Institutoei buruzko gaurko jokabideaz? Errealitatea bistan da: Institutoak hor daude, ikasleak hor daude, eta gu ez gaude.

Sartre-ren antzerki baten izena etortzen zait burura: «Les mains sales», hau da, «Esku zikinak». Batzuek garbi iraun dezaten, beste batzuek eskuak zikindu behar.

KARMELE ERROTAETXE

daduka, dauka  
daude, dagoz  
dezaten, daien  
diete, deutsee  
diezaket, deiskit, dezaidake  
diogu, deustagu  
ditzakegu, daikeguz  
gataizkie, gatxakez  
gaude, gagoz  
nioke, neuskio  
zaiku, jaku, zaigu  
zaio, jako  
zait, jat  
zazikie, jakez

## Euskal ikastaldiak Hernanin

### Hango albistariak dinoskuna:

Gaueko ikastola amaitu baino lehen, Informazio ttiki bat eman nahi nuke. Irakasleak 100 baino gehiago izan dira, hiru taldetan bilduak: umeena, basikoa eta alfabetatzea. Klase hauk\* oso ondo joan dira, eta honek indar eta gogo haundia ematen dauku, hurrengo urtean berriz jarraitzeko. ANAITASUNA aldizkaria oso laguntza haundikoa izan zaiku.

Ekainaren\* 9an, gaueko 10etan, «Galarreta Jai-Alai» frontolan, jaialdi bat ospatuko da, gaueko ikastolaren alde. Kantariak izango dira: Mikel Laboa, Xabier Lete, Arza anaiak, Pello eta Pantxoia, Laralde eta Bordsos.

**BARAKALDO****Euskara herriko kolejoetan**

Barakaldo herri erdalduna izan arren, bertoko kolejo bitan sartu dogu euskara. Guztitara, ia 400 baino gehiago dira, euskarazko ikastaldiak hartzen dituenak.

Otsailaren 1ean, sei urtetik hamalau urterarteko 400 ume eta mutiko hasi ziren «Hermanos de la Salle» ikastetxean. Ikasleok «Altos Hornos» lantegiko beharginen semeak dira. Ordutik hona, horreetariko batzuk aspertu egin dira eta utzi egin dabe euskaren ikastea. Ikastaldi honek ordaindu barik ematen dira.

Martxoaren 1ean, «San Vicente de Paul» kolejoan, beste 100 ikasle txiki hasi ziren. Ikastetxe hau bigarren mailakoa da. Barakaldon entzute handikoa. Euskal hizkuntzaz gainera, euskal geografia, kondaira, kantak, folklorea, literatura eta beste gai batzuk ere ematen jakez.

Irakaslearentzat lan neketsua benetan, pozgarria ere bai baina. Zaila jaku, izan ere, erdaldun giro batetik etorri jakuzen mutiko horreei euskal arnasa sartzeara. Aspertu egiten dira batzuetan, euren etxe eta kalean ez baitabe euskalduntasunik nabaritzen. Eginahala egin behar dogu, gogaitu ez daitezkan eta euskaraz ikasten jarraitu daien.

**Umeentzako ikastola**

Lehengo batean esan genduan, Barakaldon ba dogu txikienezko ikastola bat ere, «Cooperativa Alkartu» deritxona. Apurka apurka, tiraka tiraka, ba doa aurrera.

Ikasgelak, txikiak, ederto apainduak, txukunak, Santa Teresa elizaren azpian dagoz. Horra dabiltzan umeak, ia guztiak, inguruetakoak dira. Elizostean, zelai handi bat dabe, jolas egiteko. Pozgarria benetan, umetxok batetik bestera arineketa ikustea. Biharko euskaldun Barakaldotarrak!

Hiru andereño dihardue irakasten. Lehenengo andereñoa Ines Lobato izan zan, bertokoa eta euskaldun berria. Orain, bata Berrizkoa da, bestea Barakaldoko Lutxanako, eta hirugarrena Abadiñokoa. Gugaz izan da oraintsu arte Marina González Moro, Bilbotarra, euskaldun berria eta andereño bikaina.

Ikastola honen zuzenbidea nahi badozue, hauxe da: San Jose kalea 11, Santa Teresa eliza, Barakaldo.

**«Ez dok Amairu» kantari taldea**

Euskal Herriko edozein bazterretan ezagutzen dabe «Ez dok Amairu» kantari taldea. Baina Euskal Herrian dinogu, euskaraz egiten dan tokietan edo euskararik ba dagoela dakienetan. Barakaldon, zoritxarrez (pena da esatea, baina egia biribila da), % 60 baino gehiagok ez dakie, euskara bizi danik ere. Ez dabe tutik ere sekula entzun. «Erdal Herrian» gagoz.

Hala eta guzti ere, oraindino bizi gara euskaldun batzuk bertan, euskararen eta euskalduntasunaren alde zerbait egin gura dogunok.

«Alkartu» ikastolako gurasoek antolatu eben «Ez dok Amairu» taldearen saioa Barakaldon. Hörtik ateratako irabaziak ikastolarentzat izango ziren. Gertakizun horretaz gutxi ohartu ziren hasieran. Kale, orma eta edantokietan anuntzioak ipini izan ziren; baina, handik laster, apurtuta agertu ziren gehienak: etsalak\* azkar ibili ziren.

Apirilaren 30ean, jaialdia egiteko egunean, puskatuta genduzan Itxaropen guztiak. Baina nork esan! Bat batean, sartzeko orduan, bazter guztietatik agertu zan jendea. Ez neban uste nik, Barakaldon hainbeste euskaldun eta euskaltzale egoenik. Hurrengo egunean, Irratiak zera esan eban: «Han egoen jendetza, antolatzaileentzako optimistenak uste izango leuken baino jende gehiago izan zan». Egia haundia!

Gure artistek, «Ez dok Amairu»koek, ederto kantatu eben, gogotsu, sendo, seguru. Ahalegina egin eben, atsegingarri izateko; eta herriak eskertu egin eutsen. Azkenean, txalo ugari eta bero entzun zituen. Pozarren\* joan ziren.

**Laguntza eske**

Barakaldo ez da, gaur, joan dan mendeko\* herri txikia; hurl hazia, harroa eta aberatsa baino. Hemen, gaur egun, 125.000 bizilagun baino gehiago bizi dira.

Oraintsu arte, imigrazioaren tokirik haundiena izan da. Gure artean 20.000 galego edo galego seme bizi dira, eta aurten ospatu dabe Barakaldoko «Galego Liburuaren I. Azoka». Guk euskaldunok ez dogu sekula euki euskal liburuaren azokarik; eta, gauzak dabiltzan arauera\*, ez dogu inoiz ere eukiko, kanpoko laguntza barik.

Barakaldotarrak baserritartzat dabe euskaldun jatorra. Eta ez dabe nahi baserri bizimodua eta kultura. Nor da horren errudun? Egia esan, euskaldunak gutxitan hurreratzen dira honantz, bisitaxo bat egiteko bederen\*. Bizkaiko euskaldunei bildurra edo... ematen deutse gure herriak. Beste euskal herrialdeetakoak etorri ote dira inoiz Barakaldora? Hemen bi mila euskaldun baino ez dira bizi, gutxi gorabehera. Eta guztiz sakabanatuak, gainera. Gure ar-

**HAU DUK HUMOREA****Euskaldunak**

Euskaldunak klase bitakoak dira: bakoltza, eta beste guztiak.

**Atsotitz\* modernizatua**

Ez dut gura, ba dut gura, LSDren ura.

**Atsotitz amerikanoa**

Gizona gizon, jabea Nixon.

**Elkar hizketa**

—Ez nauk egnaren damu.  
—Ez ote duk txarrik egin?  
—Ahaztu egin nauk.

**Telebisioa**

TeleVisioa «b» letrarekin idazten dugunean, antena kentzen dlogu. (Ez da soluzio txarra, euskaldun programa bat edukl arte, behintzat).

ANTON

**MUNGIALDEA****«Elkartasuna» biltokia**

Neure beste kronika batean esan neban, nola Mungiko gazte mordotxo bat hasi ginen klub bat egiten. Nahiko kostatu jakun; baina, azkenean, lortu genduzan bai tokia eta bai haren dekorazioa. Maiatzaren lehenengoan inauguratu zan, «Elkartasuna» izenarekin; eta, apurka apurka, ba doa giro zuzen bat hartuaz.

**Kanta saioa**

Maiatzaren 22an, folk saio eder bat izan genduan «Elkartasuna» horretan. «Niebla» taldekoek, Jose Zuñigak eta Joseba Zarragak jardun eben, erdaraz eta euskaraz. Kanta guztiak gustatu jakuzen, baina Zuñiga Deustuko abogadu eta irakaslearen burruka hitzak batez ere. Ea han zan jedetzaren baitan ermetzen diren!

**San Pedro jaiak**

San Pedro jaiak datozenez gero, Udaletxera\* joan dira herritar batzuk, jaiak euren kontura antolatzeke proposamendua egitera. Udalaren\* baletza jaso ondoren, orain urte batzuetako «Sukaldi» egun ospetsua antolatzeke eskubidea eman deutsee. Entzun dogunez, Udaletxean lehen baino esku zabaltasun gehiago susmatzen da. Hala izan dadila, ez jai gastronomikoetarako bakarrik, bai eta beste arlo batzuetarako ere.

**Aldizkaritxo berri bat**

Beste klub bateko gazteak errebatatxo bat ateratzen hasi dira, erdara hutsean. Erdaltasun horren errua geurea ere ba da, ze, eurek azaldu eben legez\*, errebatatxo guztiontzat idekita dago. Zorionak gazte horreei, eta ea gogo gehiagorekin hartzen ditugun holako gauzak.

I. J.

tean, lehen esan ditugun galegoak, Afrikako beltzak, marrokiarrak, eta abar.

Jende horreek ez dauke oraindino kultura egokirik, zentzudunik. Kultura hartzeke bidean dagoz. Oraintxe dogu horretarako era\*. Euskaldundu behar ditugu; bestela, biharko egunean, gure kontra jarriko jakuz eta. Lepoa jagon behar dogu euskaldunok.

Ulertzen dozue orain, ikastetxeetan euskara sartzeara zer dan guretzako? Lortu dogu aurten, geure lepotik; baina tamalgarri litzateke, datorren urtean, ezin ematea, dana galtzea. Hori gerta ez dadin, ehundaka euskaldun behar ditugu, orain gutxi garelako.

«Eutsi, eutsi, eutsi, gurea da ta...» Baina, adiskideok, geuk bakarrik ezin dogu.

Nahi dozu, euskarazko Irakasle izan, datorren urtean, Barakaldon? Euskal Herriko seme jatorren zain gagoz.

JOSE MARI MENDIZABAL

**BILBO**

**Gabriel Aresti poetaren liburu berria**

Gabriel Aresti, Bilbotar poetak, «Harrizko Herri Hau» izenburuarekin argitaratu eman berri dau beste liburu bat, «Lur» etxearen bidez. Liburuak 143 orrialde ditu.

**Berri on bat**

Jesultek, Bilboko Indautxu auzoan, koleji handi bat dauke, bi mila ikaslerekin.

Guraso guztiei zirkular bat bidaldu deutsee, esanez, datorren ikastaroan derrigorrezkoa izango dala euskal gramatika; eta galde egiten deutsee ea, horrez gainera, euskal historia, euskal artea eta abar irakastea nahikoa dabilenentz.

Txalo bero bat Indautxuko Jesultel.

Eta beste kolejiok zer egingo dabe? Zer monjek?

**Egunkari eta Irratiak**

Ba da hilabete, Euskaltzaindiak Bilboko egunkari eta Irrati guztiei karta bat bidaldu deustela, euskara erabiltzeko eskatuz.

Hilabetea pasatu da, eta lehengoan gagoz: egunkari eta Irrati guztiek erdara hutsean dhardue.

Salbuespen txiki bat: «Hiero» falangista egunkariak euskaraz argitaratzen ditu Euskaltzaindiaren agiriak (beste guztiek erdaraz bakarrik egiten dabe).

«Herri Irratiak», Elizarenak, Eduardo Uriarteren emanaldietan, nolz behinka ematen deusku euskarazko esaldiren bat. Baina hori ez da nahikoa. Guk gauza serioago bat eskatzen dogu.

Beraz, gure betiko galdea: Nolz erabiliko dabe euskara Bilboko egunkari eta Irratiak?

**«Caritas»**

«Caritas» erakundearen eskualdekatzea edo regionalizazio oso bitxia da.

«Región Norte» dalakoan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa sartzen dira, baina ez Nafarroa. Gure anala nafarren orde, Santanderekoak sartu ditue.

«Caritas»-en zuzendariei ohar bat: ez zalteze nire etxera diru eske etorri, oker hori zuzentzen ez dozuen bitartean.

**Liburu berriak euskaraz**

Aurten, 100 liburu eta gehiago argitaratuak izango dira euskaraz. Ederto!

Nik hemen liburu bat alpatuko dot: «Rikardo Arregi» tituloduna, Arantzazuko «Jakin» editorialak argitaratua. Liburu honetan, sa konkl aztertzen da komunismoa eta gaurko ezkerre berria.

Bilboko euskaldunek hutsune hau nabaritzen dogu: ez dakigula non erosi euskaraz idatzitako liburuak. Editorialeetako harpidedun izan ezik, ezina da Bilbon liburu berririk lortzea, hemengo liburutegiek saltzen ez ditue ta.

Gaur euskal literaturak hartu dauan Indarrak, liburuen zabal-kunde on bat eskatzen dau. Askoz gehiago salduko lirateke, eta Bilbon berezik!

**«Anaitasuna» letreroak**

Pozgarria zan, Eubako euskal jalan, «Anaitasuna» letreroak hainbeste autotan jarrita ikustea. Horrek halako euskal kutsu bat ematen eutsun jaiari. Baina gero, Bilbora etorritakoan, galdu egin zan gure poza.

Non dagoz Bilboko mila eta gehiago harpidedunak? Bai, ikusten dira letreroak hemen ere, baina ez behar dan neurrian. Askok, ohitura alfer batez, «qué noticias hay» galdetzen dabe? Jaunak, notiziak geuk egin behar ditugu. Eta hori eguneroko lanarekin lotzen da.

Ea astintzen dogun geure alferkeria edo epeltasuna! Jarri daigun geure kotxean «Anaitasuna» txartel! Guztion artean, euskal kutsua eman behar deusta Bilbori. Jende zintzoa eta bizia behar dogu, ez alferra.

XABIER GEREÑO

**Euskal jai Mallabian**


Dantzariek, harrijasotzalleek eta Azkoitiko Larrañaga eta Maabiko Mendiola «Azuntze» bertsolariek parte hartu eben, Bizkaiko Mallabian, Artetako erromerian. Mallabiko gazteek, lan luzea, astuna eta trabaz bete egin ondoren, jaldid ederrak antolatzen ditue. Ez atzera egin! Etorrizuna gu gazteona da! Aurrera!

guztietariko  
elektrodomestikak  
sukaldearen  
lagungarri

salneurri  
apartekoak  
1971



COCINAS



FRIGORIFICOS



LAVADORAS SUPERAUTOMATICAS



Edesagaz, bizitza goxoa elkarregaz

1971-n egindako produkzio handiari eskerrak ditugu holako salneurriak

# Laguntza eskaini behar legutianoko euskaldunei

ANAITASUNA aldizkariak argitaratu duen azkenaurreko zenbakia, apirilaren 30ekoa, oso gogotik irakurri dugu. Batez ere Arabako gaurko euskal giroa ezagutzea oso atsegin zaiku. Euskal Herria ezagutzeko, horrelako lanen beharrean gaude. Oso Interesgarria ere, «Arabako Elizaren Aurpegi Ilun Bat» izeneko lana.

Arabako lurraz ez dut idazten; nahikoa dut Nafarroarekin. Dena dela, Araba ere ondo ezagutzen dut; eta aitortu behar, euskal konzientzia maiatzeko euria bezain azkar ugaritzen ari\* dela zorionez.

Eta Eliza, zer? Esnatu da\*; baina bi oztupo ikaragarriak aurkitzen ditu bere bidean, herria behar den bezala zerbitzeko: alde batetik, gotzaina ez dugu euskal giroaren laguna; bestetik, seminarioko zuzendari ta irakasleak, haundikeria ta unibertsalismoagatik, Euskal Herriari begiratuaz, lo daduzkagu.

Horren eredu\* garbia, Legutianon\* gertatzen dena. Eusegio Osak dioen bezala, «Legutianoko krimena». Ikaragarriak hitzak esan ditu gure idazle honek. Nondik has, bidea urratzeko, ez du hain garbi ikusten: «Guk ere Gasteiztik zerbait gehiago egin behar genuke, hango egoera aldatzearen alde. Oraindik ez dakigu nondik has. Lehenengo urratsa\*, Legutianoko jende gazte talde bat iratzarri\* eta protesta bidean ezartzea izango litzateke, beharbada».

Erazena da, gotzainari eta hango apaizei erruak botatzea. Ez dira haien erruak bakarrik. Guk ere ez ote dugu Pilatosen antzera jokatzeko? Besteie erruak bota eta patxadan gelditu.

Ezin dugu Legutianon euskara galtzen utzi. Zer egin orduan? Jende gaztea protesta bidean jartzen hasi? Hori sasikeria ugaritzea izango litzateke. Lehenago ba dugu nahikoa. Beharrezkoena hauxe da: burura jo. Lege gizonak eta notarioak hartu, herrira joan, berriak altxatu eta Erromako auzitegira eta epaitegi nagusira agertu gertatzen direnak. Ez da gauza zaila, erraza baizik.

Gazteak protesta bidean jartzea, arin jokatzeko da, gazteak erretzea. Ez ote dugu nahiko gazte inozokerietan\* erre? Noiz ikasi

behar dugu, geurok aurpegia ematen? Zergatik beti sasi tartean ibili?

Legutianoko gorabehera hoietan, Elizaren lege berriek, Kontzilioak aitortu dituenek, laguntzen daukute. Geure alde ditugu. Orduan, lanik onena izango litzateke, legearen bidez jokatzeko. Orduan bai, gotzaina eta apaizak gaizki agertuko liratekeela.

Horrelako ekintzak behar ditugu aurrera eraman. Gainera, bide horretan ematen diren pauso guztien berriak, azaldu garbi paper batzuetan edo euskal aldizkarietan, eta elizgizonen banatu. Horrelako jokabideen behar haundia daduka Gasteizko gotzainak. Ez hitz gordinak esan, legea eskuan dugula, aurpegia eman baizik.

Ekintza hau Arabako elizgizon talde batek ezin badu aurrera eraman, beste probintzietakoek laguntza eskatu. Gauzak behar diren bezala egiteko prest gaude.

Legutianoko gorabehera hoik\* aurrera eraman beharrak daude, baina bide zuzenetik. Horko gertakariekin Euskal Herri osoak zerikusit haundia daduka. Arrazoiak geure aldetik ditugu. Erroman, Elizako agintarien aldetik, geure aldeko giroa dugu. Orduan, guk jator eta gogor jokatu behar.

LATXAGA

daduka, **dauka**  
daduzkagu, **daukaguz**,  
dauzkagu  
daude, **dagoz**  
daukute, **deuskue**, digute  
gaude, **gagoz**  
zaiku, **jaku**, zaigu

## AZPEITIA

### Gure herriko euskal kantariak

Duela urte batzuk hasi zen kanta zaletasuna gure herrian pizten, eta egun\* aurrera doa.

Noiznahi garbi ikusi dugu, jaialdiren bat jarriz gero, jendea erruz\* joaten dela. Ezin genezake, beste zenbait kultur gaitan, berbera esan. Dena den, gauza pozgarria dela ez dago ukatzerik. Eta, kantarien aldetik, zer esan? Ikus ditzagun pitin bat, bakoitzari berea emanez, geure herriko zenbait\* abeslari.

«Unai» hirukotea izan dugu ezagunena, zeren\*, kanta bikainak eginez gainera, hor dabilta herriz herri beren kantak abesten, edozein lekutan edozer gauzaren alde beren kanta saioak eskainiz. Hamaika kanta eder entzun dugu, haien boz gozoak lagunduta.

Xabier Saldiaz ere hor dugu. Lehen bakarrik ziharduen, eta orain, «Egan» taldea osatu zenez geroztik, talde horretan ari\* da kantari, isil isilik, baina beti humoreko, nahiz dantza tokietan nahiz herrietako jaietan, beti gazteriarren alaiagarri eta beti euskaraz abesten. Pozgarria hau benetan, euskaraz gutti hitz egiten den herrietan ere jendea ausartki\* ari baita\* haren kanta denak euskaraz abesten. Aurrera!

Azken bolada\* honetan, denetan sonatuena Javier Madina izan dugu. Honek, duela bi urte, «Baso Bidean» gabonkanta polit harekin, Iruineko txapelketan lehen saria irabazi zuen, eta euskaraz kanta asko abestu du. Ez goaz hemen, abestien balioa kritikatzera; ez, ordea\*, zer esatekorik ez dugulako, baizik kantariaren jokatibideak okerragoak direlako. Gauza bat eskatuko genioke: arren, ez dezala gehiago protesta kantarik egin, zeren\*, azken disko horrekin, «Nun dira nekazariak» alegia\*, ba dirudi, nekazariez anitz\* errukitzen dela. Baina guk, Madina ezagutzen dugunok, zera esaten dugu, alegia, funtsean\* disko horrekin baserriarren kontura farra egitea besterik ez duela egiten.

Gure Javier Madina, exitoaren, ohorearen\* bila dabilta hoietakoa dugu; gaztelaniaz eta euskaraz abesten duten hoietakoa; eta euskaraz, modan jarri zaizkion kantatzen duena; bestela, gaztelaniaz bakarrik abestuko lukeena. Horrelakoei ezin esan, euskal kantante direnik, zeren\* eta ez dira Euskal Herriaren egoeraz jabetzen, eta ateratzen dituzten diskoetan —nahiz euskaraz nahiz gaztelaniaz— ahaleginduko dira herri xehearen kontura sakela betetzen eta ahalik eta kantarik hutsenak ateratzen eta herriari mensajeen ordezkariak\* kantatzen.

Duela denbora dexente, Diario Vasco egunkarian, Javier Madina «ídolo de la canción vasca» ipini zuen norbaitek. Lekutan zegok! Ba diagu eredu\* hobeagorik, alajainko\*! Eta, Radio Nacional de España-n, « y ahora en euskera Javier Madina... » ia egunero entzuten da.

### Ohar bat

ANAITASUNA hamabostean behin ateratzen da. Erosi nahi duenak, Plaza Ttipiko Estanko Ttipian aurkituko du.

EUSKARAZALEAK

BIZKAIKO AURREZKI KUTXAK Bilbon eta Probintzia guztian, laguntzarit zabalena ematen dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

ZURE DIRUGORDETZERAKO:

## Caja de Ahorros Vizcaina

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao

Telefono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90

URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako herririk nagusienetan 70 etxeordezko

Madrilako agentzia: I. C. C. A. Alcalá, 27

Telefono 2 21 49 95

**H I Z T E G I A**

**Ale honetan izartxo bategaz agertzen diren berbak**

ADIN, edade.  
 AGIAN, nonbait, **seguramente, probablemente.**  
 AHULDU, makaldu.  
 AHULEZIA, makaltasun.  
 AHULKERIA, makalkeria.  
 AINITZ, asko.  
 AIPATZEKE, aipatu gabe.  
 AISE, aisa, erraz.  
 AITZINDARI, **precursor.**  
 AITZITIK, **al contrario.**  
 AKITGARRI, **penoso, fatigoso.**  
 ALABAINA, **en efecto.**  
 ALAJAINKO, **pardiez!**  
 ALBISTE, berri, **noticia.**  
 ALEGIA, **esto es, a saber.**  
 AMATA, amatatu, itzali, **apagar.**  
 AMATATU, itzali, iraungi, **apagar.**  
 ANITZ, ainitz, asko.  
 ARABERA, arauera, **según.**  
 ARAUERA, arabera, **según.**  
 ARDIETS, ardietsi, erdietsi, lortu (**potentzia-letan**).  
 ARE, oraindik, oraindino.  
 ARETO, sala, **salón.**  
 ARGI, argitu (**potentzialetan**).  
 ARGITARATZEKE, argitaratu gabe.  
 ARI IZAN, jardun.  
 ARITU, ari izan, jardun.  
 ARO, **época, periodo, edad.**  
 ARRAKASTA, **éxito.**  
 ARRAS, guztiz, oso.  
 ARRUNT, **corriente, común.**  
 ASKI, nahiko.  
 ASTEARTE, martitzen.  
 ASTEAZKEN, eguasten.  
 AT, kanpoan.  
 ATONDU, antolatu.  
 ATSOTITZ, errefracu, **refrán.**  
 ATZEMAN, **prender, detener.**  
 AUSART, **valiente, intrépido.**  
 AUSARTKI, **valientemente, intrépidamente.**  
 AUSARTU, **atreverse.**  
 AZOKA, feria.  
 BAITA, bait da, da ta.  
 BANATAN, banazean, **separadamente.**  
 BAPATEAN, bat batean, **repentinamente.**  
 BATZORDE, **comisión.**  
 BEDEREN, gutierrez, behinik behin.  
 BEHARGIN, langile.  
 BEHINEN, **primordial, principal.**  
 BEHINGOAN, berehala.  
 BERAZ, hori dala ta, **por consiguiente.**  
 BEREBAT, orobat, **igualmente.**  
 BEREZIKI, batez ere.  
 BESTALDI, festaldi, jaialdi.  
 BIDE, nonbait.  
 BOLADA, unada, **período de tiempo.**  
 BUKATU, amaitu.  
 BURDIN, burdina. (**Hitz elkarteetan, lehen hitzak, batzuetan, azken bokala gaitzen du; beste batzuetan, azken silaban aldakuntza bat izaten du. Adibidez: anal maltasuna, arnas gaitzaldia, ekonomi arazoa, eliz agintaria; euskal kantaria, filosofi sala, giza eskubideak, itsas araudia, kultur gaia, literatur irakaskintza**).  
 DASTATU, **gustar, degustar.**  
 DATXEKO, etxekitzen zailo. (**Etxeki, atxiki, adehirse, estar adehrido**).  
 DEA, da + a. (**Azken letra hau aditzarri ezarzen zaio galdeetan**).  
 DESENKUSA, **escusa, pretexto.**  
 DEUS, ezer.  
 DUKE, du nonbait.  
 EGOTZ, egotzi, bota (**subjuntiboetan**).  
 EGUN, gaur.  
 EI, omen.  
 EKAIN, **junio.**  
 ELEBERRI, nobela.

ENPARANTZA, plaza.  
 ERA, ereti, abagadune, parada, **ocasión.**  
 ERABAT, guztiz.  
 ERAKARPEN, **atracción.**  
 ERAKUNDE, **institución, organismo.**  
 ERANTS, erantsi, **añadir (potentzialetan).**  
 ERAUZI, **arrancar.**  
 EREDU, **modelo.**  
 EREMU, barruti, **terreno.**  
 ERESTALDE, abestalde, abesbatza.  
 EROAN, eraman.  
 EROAPEN, pazientzia.  
 ERORI, jausi.  
 ERRESUMA, erreinu, estatu.  
 ERRUZ, eurrez, **abundantemente.**  
 ESKUALDE, **comarca.**  
 ESNATU, itzarri, itzartu, **despertarse.**  
 ESPANTU, **jactancia.**  
 ETSAL, arerio, **contrario, enemigo.**  
 ETSI, **perder la esperanza, desesperar.**  
 EUSKALKI, **dialecto vasco.**  
 EZARIAN, geldiro geldiro.  
 FROGA, **prueba, demostración.**  
 FROGATU, **probar, demostrar.**  
 FUNTS, **fondo, substancia.**  
 GAITZ, gatx, zail.  
 GARATEKE, gara nonbait.  
 GARNATA, **carpada, cebo.**  
 GOITI, gora.  
 GOMENDIO, **recomendación.**  
 GUTUN, eskutitz, karta.  
 HASTAPEN, hasiera.  
 HAUK, honeek (**hauek aktibo, hauek pasibo**).  
 HEDATU, zabaldu.  
 HEGI, ertz.  
 HEIN, **grado, medida, proporción.**  
 HELBURU, xede, **fin, objetivo.**  
 HERRIALDE, probintzia.  
 HERTSI, hestu.  
 HITS, **triste.**  
 HOIK, horreek (**hoiek aktibo, hoiek pasibo**).  
 HORREGATINO, hala ere.  
 HORTZ, hagin.  
 HOTS, **a saber, esto es.**  
 HURBIL, hur.  
 HURBILDU, hurreratu.  
 IGANDE, domeka.  
 IGORRI, bidali, bidaldu.  
 IHARROSI, **sacudir.**  
 IHARTU, lgartu.  
 IKERTU, aztertu.  
 INKESTA, **encuesta.**  
 INOSTAN, ziostan, esaten zeutan, esaten zidan.  
 INOZOKERIA, **bobería, bobada.**  
 IRAGAN, Igaro, pasatu.  
 IRAKASLEGO, irakasletza, **magisterio.**  
 IRATZARRI, itzartu eragin, **despertar.**  
 IRAULTZA, **revolución.**  
 JADANIK, **ya.**  
 JAGOLE, **guardián.**  
 JAGON, zaindu.  
 JAITSI, **bajar.**  
 JAREGIN, **librar.**  
 JAZO, gertatu, **acontecer.**  
 KERMEZA, erromeria.  
 LAGA, utzi.  
 LANGILEGO, **clase obrera.**  
 LARREGI, gehiegil.  
 LARRI, **grave, importante.**  
 LAUTADA, **llanura, planicie.**  
 LEGEZ, lez, bezala.  
 LEGUTIANO, **Villarreal de Alava.**

LEHIAKETA, **competición.**  
 LEHIATSU, **diligente, afanoso.**  
 LEKUKO, testigu.  
 LILURAGARRI, **encantador.**  
 LOR, lortu (**potentzialetan**).  
 MARRAZKI, **dibujo.**  
 MEMENTO, momentu.  
 MENDE, **siglo; menpe.**  
 MIRABE, **criada, domestique.**  
 MUNTA, muntatu, atondu, antolatu (**subjuntiboetan**).  
 MURRU, muro.  
 NABARITU, **percibir, notar.**  
 NESKAME, **criada, domestique.**  
 NOSKI, naski, **ciertamente, claro está.**  
 OHARTU, konturatu.  
 OHORE, **honor.**  
 OIHAN, baso.  
 OIHARTZUN, **eco.**  
 OMEN, ei.  
 ONURAGARRI, **provechoso.**  
 ORATU, **amasar, forjar.**  
 ORDEA, ostera, **en cambio.**  
 ORMA, paret.  
 ORO, guzti.  
 OROBAT, **igualmente.**  
 OROKAR, **general.**  
 OSTEGUN, eguen.  
 OSTERA, ordea, **en cambio.**  
 OSTIRALE, bariku.  
 OTSAIL, **febrero.**  
 OZEN, **sonoro.**  
 PATU, **hado, destino.**  
 POZARREN, pozik.  
 PROLETALGO, **proletariado.**  
 SALBATORE, Asentsio.  
 SALBUESPEN, **excepción, salvedad.**  
 SARRIEGI, maizegi.  
 SOFRIKARIO, sufrimentu.  
 SOIL, **puro, mero.**  
 SOILKI, **solamente, meramente.**  
 SOINUGAILU, **instrumento musical.**  
 TXOSTEN, **comunicación escrita.**  
 TXUNDITURIK, harriturik, **estupefacto.**  
 UDAL, **ayuntamiento.**  
 UDALETXE, **casa consistorial.**  
 UFAL, uhar, uholde, uiol, **torrente, crecida.**  
 UKAN, izan (**aktiboa**).  
 UKANEN, izango.  
 URRATS, pauso.  
 URTARRIL, **enero.**  
 UZTAIL, **julio.**  
 XARMANGARRI, zoragarri.  
 ZAILU, zalu, **ágil.**  
 ZALANTZA, ezbal, duda.  
 ZENBAIT, batzuk.  
 ZEREN (ETA), **ze, pues.**  
 ZERITZAN, erizten zion, deitzen eutsen.  
 ZIN EGIN, **jurar.**



# Espru-ren eritzia

## BERNAT ETXEPARERI BURUZ

Oso ona idurlitu zait, ANAITASUNAREN 211. zenbakian Arestik Etxepareekin egiten duen elkar hizketa: «Bernat Etxepare» (XVI. mendekoa\*). Poeta izan behar, hori egiteko.

Berak zirikatu nau, Salvador Espru katalan poetak kartaz eman zeuzkidan eritzi batzuk argitaratzera. Jakinagariak, gure literatura zaharren azterketarako. Baina lehen lehenik, Eibartarra naizenez, eskerrik beroenak Gabriel adiskideari, gure euskararen alde esan dituen hitz egokiengatik. Agirlan dago, poetek hobeto konprenitzen dutela gure euskara klaroa. Honegatik dio Biktoriano Gandiagak ere, oraindik argitaratzeko\* duen Hiru gizon bakarka poema liburu jarrean:

**Ez dakit  
nongo euskara zala ona  
esan zidaten.**

**Niretzat, egiten dana,  
edo  
Eibarrekoa.**

...

Harira joan baino lehen, beste puntu bat ere argitu behar dut, irakurle asko konturatuak badira ere. Hemen aipatuko dudan Etxepareren edizioa bederatzigarrena da, 1968.ean «Txertoa»k argitaratua. Eta edizio honek huts handi bat du euskarazko testuan: «Ezkonduen koplak» poemaren azken bertsoa falta du (80. orrialdean), eta azken aurrekoa azkenaren zati batekin nahasturik aurkitzen da bere hirugarren eta laugarren ahapaldietan. Zuzenketa egin nahi duenak, bertso bat gehituz, honela jarri behar du:

**Amoria ezein zentzuz ezin daite goberna;  
Anhitzetan honesten du, guti behar duiena.  
Arnoak bano gaizkiago ordi diro persona;  
Sarri esteka, berant laxa hark hatzeman dezana.**

**Amoria itsu da eta eztazagu zuzena;  
Eztu uste bertzerik dela, lekot maite duiena.  
Suak bano gaizkiago erra diro gizona;  
Itxasoak ez iraungi, eratxeki dadina.**

(Amorea ezelako zentzuz ezin daiteke goberna;  
Askotan onesten du, gutietsi behar duena.  
Ardoak baino gaizkiago hordi dezake pertsona;  
Laster du hark lotzen, berandu laxatzen, hatzeman dezana.)

Amorea itsu da eta ez du ezagutzen zuzena;  
Ez du uste besterik dela, salbu maite duena.  
Suak baino gaizkiago erre dezake gizona;  
Itsasoak ezin amata\*, harekin blztu dena.)

...

Gure literatuaren hastapenetako\* liburu honi buruzko eritziak beti izango zaizkigu jakinagariak. Eta Espru-ren karta honek merezi du argitaratzea, zeren\* lehen aldiz alpatzen baltauku Ingles poeta zaharren kidetasuna, literatur jakintzaz hain hornitua den batek.

Arestik berean agertzen zuen bezala, Etxepareren poesiari Vinson-ek frantses forma aurkitzen zion; baina ez, ordea\*, Dogson Inglesak eta Schuchardt alemanak; hauek euskal kutsuduna aurkitzen zuten. Arestiren uste berekoa naiz, puntu honetan; eta Etxeparek, Inorenik izatekotan, euskal koblakari zaharretarik anitz\* duela esan behar. Baina honekin ez dut esan nahi, euskaldunok Europatik aparteko zerbait garenik, ez. Telesforo Aranzadik aspaldi esan zuen bezala, Euskal Herria ez da herri bitxi bat Europako okzidentean.

Dogson-ek ez dakit zer neurritan ezagutuko zuen Ingalaterrako Erdi Aroko\* literatura. Beharbada, ez zitzaion gogoratu konparazioa egiterik. Dakiguna da, Provenzal literaturak, poesian bereziki\*, Influentzia handia izan zuela Frantzia eta Euskal Herrian bertan (Zuberoko kanta zahar asko ditugu lekuko\*). Baina Salvador Espru-k oso ongi ezagutzen du Provenzal literatura zaharra; eta Etxepareri, Inoren antzik aurkitzekotan, esan dugun bezala, Erdi Aroko Ingles poetena aurkitzen dio. Jakina, Espru-k hain ongi ezagutzen ez duena, Euskal Herriko bertsolaritza eta koblakaritza da. Guk geuk ere ez dugu material zahar gehiegirik, behar bezalako konparazio azterketak egin ahal izateko, zeren\*, konparazioak egiterakoan, geroztiko herri kanteekin gehiago ballatu behar gara, lehenagorik urri dugulako.

Baina Espru-ren eritzi hau, lehendik ditugunez gainera, beste bat gehiago izanen dugu, argi hobeago baten lagungarri. Hona hemen, hitzez hitz itzulia:

«Barcelona, 1969-2-10.

Ene adiskide:

Ba dakit erantzun neutzula, bidali zeneutan Etxepareren liburu hartu nuela aditzera emanaz; baina ez naiz orol-tzen, berari buruz ezer zehazki esan neutzunik. Asko interesatu zait bera irakurtzea. Poetagan —poeta handi bat noski, adierazteko eretan hain lotura borobilak aurkitzen ez badira ere— oraindik Erdi Aroko taxura nabari da; hain zuzen, lehenagoko Ingles poeten kidetasuna du, haien pareko izan ez arren; hauxe da, behintzat, nire impresioa. 'Judizio jenerala', 'Ezkonduen koplak', 'Amorez errekeritza' eta 'Amorosen disputa' poema ikusgarriak dira. Lilluragarriak, 'Kontrapas' eta 'Sautrela'; ikaragarria, 'Mosen Bernat Etxepare kantua'; oso sinpatikoa, 'Emazten fabore', hain ongi azertaturiko hamairugarren bertso horrekin. Bikainak dira, Mitxelenaren hitzaurrea, Lino Akesoloren itzulpena eta oharrak, eta orobat\* Intxausti andereñoak René Lafon-en zuzenketa egina. Donostiako Edili eta Txertoa argitaldarien, 'cuya vida guarde Dios muchos años', lan ederra lortu dute. Katalan honentzat bitxi-garria, liburuaren Inprimatzea 'Merced', egunean izatea, 1968-IX-23-ean, katalan naizenez gero.

Baliozko erregalu honengatik neure eskerrak Igortzen\* dauzkizut. Har zazu adiskide agurra.

Espru»

JUAN SAN MARTIN

dauku, **deusku**, digu  
dauzkizut, **deutsudaz**, dizkizut  
dezake, **dalke**  
dio, **deutso**  
neutzun, **neutsun**, nizun  
zait, **jat**  
zaizkigu, **jakuz**

zazu, ezazu, **eizu**  
zeneutan, **zeunstan**, zenidan  
zeuzkidan, **eustazan**, zizkidan  
zidaten, **eusten**, zeutaten  
zion, **eutson**  
zitzaion, **jakon**

### «Pintores Vascos» (II) liburu berria

Luis Madariaga jaunak «Pintores Vascos» izenburuarekin egin dauan liburu, «Añamendi» etxeak argitara eman berri dau. Liburu honetan, Menchu Gal pintoreagandik hasi eta Jose Luis Zumetaganarte diren pintore guztiak aztertzen dira. Eskatzeotan: «Añamendi», apartado 2, San Sebastián.